

KUDEAKETARAKO, DIRU-BILKETARAKO ETA IKUSKAPENERAKO ORDENANTZA FISKALA

0. ordenantza

I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

Xedea

1. artikulua.- a) Ordenantza Fiskal honen xedea da Iruñeko udalerriko zerga-erregimena osatzen duten tributu-baliabideen ordainarazpenari dagozkion oinarri orokorrak eta arau erkideak finkatzea.

b) Ordenantza honen arauak ordenantza partikular bakoitzaren osagarritzat hartuko dira, azken horiek berariaz arautzen ez duten orotan.

c) Tributuaren zein zuzenbide publikoko beste diru-sarreraren diru-bilketa Ordenantza honen VII. kapituluan ezarritakoarekin bat egingen da, betiere gainerako ordenantza fiskaletan eta prezio publikoak erregulatzen dituzten arauetan aurreikusitako berezitasunak kontuan hartuta.

d) Ordenantza honetan espres xedatua ez den orotan, edo indarra duen araudian aldaketak egitearen ondorioz eduki batzuk indarrak gabe gelditzen diren kasuetan, zuzenean aplikatuko dira Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen aginduak, Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrarenak eta horiek garatzeko erregelamenduenak. Lege- edo erregelamendu-aginduetara bidalita egindako oharra arau horietan unean-unean indarra duten edukien gainekoak direla ulertuko da.

Ezarpenaren orokortasuna

2. artikulua.- Hala tokian tokiko ordenantza fiskalek nola toki-ogasunei buruzko foru legeek –halakorik beharrezkoa ez izateagatik ordenantza partikularrik onetsi ez den kasuetan– agintzen duten bezala, zergak ordaintzeko betebeharra guztiona da, eta pertsona fisiko eta juridikoak nahiz eskubide eta betebeharrak fiskalak dituzten nortasun juridikorik gabeko subjektuak oro ukitzen ditu.

Ez in izanen da bestelako hobari fiskalik ezarri, salbu foru lege batek halaxe aurreikusten badu, eta, era berean, ez da onartuko inolako analogiarik, zergapeko egitatearen eremua edo salbuespen eta hobariena beren muga hertsietatik harago hedatzeko.

Oro har, eskatutako onura fiskalen emakidaren eragina eskaera egin eta hurrengo ekitaldian hasiko da, eta ez du atzeraeraginik izanen. Hala ere, onura fiskala likidazioa irmoa izan aurretik eskatzen denean, tributuaren sortzapen egunean hura baliatzeko baldintzak betetzen badira aplikatuko da. Eskatutako onura fiskalak etorkizuneko aldietan aplikatzeko, onartu ondoren, aplikatzekoa den araudian eskatzen diren betekizunak bete beharko dira une oro.

Ezarpen-eremua

3. artikulua.- Ordenantza Fiskalak Iruñeko udal-mugarte osoan ezarriko dira, indarra hartzen duten unetik bertatik indargabetu edo aldatzen diren arte.

II. KAPITULUA. TRIBUTUEN APLIKAZIOA

Tributu-betebeharpekoen eskubideak

4. artikulua.- 1) Honako hauek dira tributu-betebeharpekoen eskubide orokorrak:

a) Eskubidea dute Udal Administrazioak informazioa eta laguntza eman diezazkien beren tributu-betebeharrak betetzeko, betebeharrak horien eduki eta irispidearen gainean.

b) Eskubidea dute tributuak aplikatzearen ondorioz behar bezala ordaindu edo jasandako kopuruen itzulketak eskuratzeko, kasuan kasuko tributuaren araudian aurreikusitakoarekin bat.

c) Eskubidea dute okerreko diru-sarrerak itzul diezazkieten eta berandutze-interesak ere ordaindu diezazkieten, horretarako errekerimendurik egin gabe.

d) Eskubidea dute tributu-zor baten betearaztea eteteko jarritako abalen eta bestelako bermeen kostua ordaindu dakien, epai edo administrazio-ebazpen irmo batek kasuan kasuko zorra bidegabekotzat deklaratu bezain laster.

e) Eskubidea dute jakiteko izapideak zertan diren, parte diren prozeduretan.

f) Eskubidea dute ezagutzeko beraiek interesdun dituzten tributu-kudeaketako prozedurak izapidetzeko ardura duten Udal Administrazioako agintari eta langileen identitatea.

g) Eskubidea dute beraiek aurkezten dituzten aitorpenen ziurtagiriak eta kopiak eskatzeko.

h) Eskubidea dute berriz ere ez aurkezteko lehendik aurkezturik dituzten eta Udal Administrazioak bere esku dituen agiriak.

i) Eskubidea dute, legeek agintzen duten eran, Udal Administrazioak eskuratutako datuak, txostenak edota aurrekariak isilpean gorde ditzan, eta Administrazioak ez du zilegi izanen horiek baliatzea kudeatu behar dituen

tributuak edo baliabideak benetan aplikatzeko ez bada, halako eran non ezin izanen baitzaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, legeek aurreikusiriko kasuetan salbu.

j) Eskubidea dute Udal Administrazioiko langileek behar bezalako errespetuz eta begiramenez trata ditzaten.

k) Udal Administrazioaren jarduketek tributu-betebeharpekoek parte hartzea eskatzen badute, tributu-betebeharpekoek eskubidea dute ahalik eta arinen izanen zaien moduan egiteko.

l) Eskubidea dute alegazioak egin eta dokumentuak aurkezteko, eta erakunde eskudunak horiek kontuan hartzeko, kasuan kasuko ebazpena ematerakoan.

m) Eskubidea dute entzunaldiaren izapidetan mintzatzeko, horri dagokion ebazpena eman baino lehen.

n) Eskubidea dute informazioa jasotzeko, erosi edo eskualdatuko diren ondasun higiezinak duten balioaren gainean.

o) Eskubidea dute Udaleko Tributu Ikuskaritzak egiaztatze- edo ikertze-jarduketei hasiera ematen dienean informazioa jasotzeko hala horien izaeraren eta irispidetaren nola jarduketek dirauten bitartean dituzten eskubide eta betebeharren gainean, bai eta jarduketak legeek agindutako epeetan egin daitezzen ere.

2) Artikulu honetan aipatutako eskubideek ez dituzte galarazten antolamenduaren gainerako arauak aitortzen dituzten eskubideak.

3) Tributu-betebeharpekoak aipatzen direnean, ulertzen da halakotzat jotzen direla subjektu pasiboak, erantzuleak, tributu-zor bateko oinordekoak, legezko ordezkariak nahiz borondatezkoak, Udal Administrazioari laguntza edo informazioa emateko obligazioa dutenak eta, baita ere, tributu-prozedura batean interesdun edo parte den beste edozein pertsona.

5. artikulua.- Tributu-betebeharpekoen eskubideak gauzatze aldera, Iruñeko Udalak honako eginbehar hauek bete behar ditu:

a) Zergadunei behar duten laguntza eta eskubideei buruzko informazioa ematea. Eginbehar hori izapidetzeko, honako jarduketa hauek baliatuko dira: tributuen arloko arauen testu eguneratuak argitaratzea, jakinarazpenak igortzea, tributuen arloko kontsultei erantzutea eta balorazioak egiteko aurretiazko erabakiak hartzea. Horri dagokionez, Udal Administrazioak tributuen gaineko arauak aplikatzeko dauden irizpide administratiboei buruzko informazioa emanen die zergadunei; halaber, haien esku jarriko ditu aipatu irizpideak biltzen dituzten datu-base informatikoak, kontsultatu ditzaten, eta sektore edo jarduera jakin batzuen zerga-ordainketari buruzko informazioa emateko jakinarazpenak igortzen ahalko ditu.

Laguntza berezia emanen zaie zergadunei, Udalaren tributuen bildu eta kudeatzeko prozeduran galdagarri diren aitorten eta autolikidazioak egiterakoan, eta, egoki den orotan, eredu normalizatuak paratuko dira haien eskura.

b) Tributu bakoitzari dagozkion arauak sorburu dituzten itzulketak egitea. Iruñeko Udalak kasuan kasuko tributuen araudian aurreikusitakoarekin bat itzuli beharreko kopuruak itzuliko ditu, horiek tributua aplikatzearen ondorioz behar bezala ordaindu edo jasandakoak badira.

c) Okerreko diru-sarrerak itzultzea. Iruñeko Udalak Diruzaintzak oker eskuratutako diru-sarrerak itzuliko dizkie tributuen betebeharpekoari, subjektu arau-hausleei edo batzuen zein besteen oinordekoari, baldin eta horiek beren tributuen betebeharrak betetzearen edo zehapenak ordaintzearen ondorioz eskuratu baditu.

d) Bermeen kostua itzultzea. Iruñeko Udalak egintza bat eteteko edo zor baten ordainketa geroratu edo zatikatzeko jarritako bermeen kostua itzuliko du, betiere horren zenbatekoa egiaztatuta eta gero, baldin eta ebazpen administratibo edo epai irmo batek egintza edo zor hori bidegabekoa deklaritzen badu.

e) Berandutze-interesak ordaintzea, hori bidezkoa bada.

Gizarte-lankidetzak

6. artikulua.- Tributuen kudeaketan gizarte-lankidetzak gauzatzeko, akordioak sinatuko dira gizarte-, lan-, enpresa- edo lanbide-sektoreen edo -interesen ordezkari diren entitate, instituzio eta erakundeekin.

Lankidetzak hori, besteak beste, honako gai hauetan gauzatzen ahalko da:

a) Informazio- eta zabalkunde-kanpainak.

b) Autolikidazioak, aitortenak eta gaztiguak egiteko eta horiek zuzen betetzeko laguntza.

c) Tributuen arloko betebeharrak eta eginbeharrak betetzeko moduaren sinplifikazioa.

7. artikulua.- Udalak baimena ematen ahalko du, tributuen kudeatzeko zerbitzuak eman ohi dituzten entitate edo pertsonekin kanpoko lankidetzak hitzarmenak sinatuta, hirugarren pertsonen izenean bide telematikoz aitorten eta autolikidazioak aurkeztu eta beste hainbat izapide egiteko.

Kasuan kasuko hitzarmenari atxiki eta aitortenak edo bestelako izapideak bide telematikoz egin ahal izateko, hirugarrenen izenean aritzekoak diren pertsona edo entitateek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Udalaren aplikazioekin bateragarri diren informatika-sistema eta -programak erabiltzea, betiere Udalaren webgunean azalduko diren zehaztapenekin bat.

2. Zer tributu-betebeharpekoen izenean aritu eta horien ordezkariak nahikoa edukitzea, Tributu-uruzko Foru Lege Orokorraren 36. artikuluan ezarritakoarekin bat. Udalak edozein momentutan eskatzen ahalko du ordezkariak horren egiaztatzea.

3. Indarra duten legeek datu pertsonalen tratamendu automatizaturako galdatzen dituzten baldintzak betetzea.

4. Iruñeko Udalarekiko tributu-betebeharrak egunean izatea.

5. Baldin eta ordezkaria ez bada administrazio publiko bat edo gizarte-, lan- edota enpresa-sektoreen edo interesen zein sektore edo interes profesionalen ordezkari den entitate, instituzio edo erakunderen bat, izena emanda eduki beharko du Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren edo Lizentzia Fiskalaren Tarifak eta Jarraibidea onetsi zituen maiatzaren 28ko 7/1996ko Foru Legearen I. eranskineko Lehen Sekzioko 841. edo 842. multzoetan edo 849.7 epigrafean, edo, bestela, Bigarren Sekzioko 722. multzoan edo 73. eta 74. taldeetan.

Artikulu honetan edo kasuan kasuko hitzarmenean ezarritako betebeharrak ez betetzeak kudeaketan laguntzaile ari den pertsona edo entitatea ordezkariak-sistematik baztertua ekarriko du, halako eran non hitzarmena baliogabetu eta desagertu egingen baitira hala hirugarren pertsonen tributu-aitorpen edo - autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko aukera nola hirugarrenen ordezkariak beste izapide batzuk bide telematikoz egiteko.

Baliabide elektronikoen erabilera

8. artikulua.- Kudeaketari, diru-bilketari eta ikuskapenari dagozkien prozeduretan elektronikoki egin daitezkeen jarduketak eta izapideak Iruñeko Udalaren Administrazio Prozedura Erkidea eta Araubide Juridiko Elektronikoa arautzen dituen Ordenantzan ezarritakoari egingen diote men.

III. KAPITULUA. TRIBUTU HARREMANAREN ELEMENTUAK

Zerga-egitatea

9. artikulua.- Zerga-egitatea kasuan kasuko ordenantzan ordainarazpen bakoitza eratzeko finkatzen den aurrebaldintza juridikoa edo ekonomikoa da, gertatzean tributu betebeharrak sortzen duena.

Ordenantza fiskal partikular bakoitzak zehaztuko du zein den zerga-egitate konkretu eta jakina, betiere aipatuz lokabetasunaren zergatiak eta zerga ordaintzeko betebeharrak sorrarazten duten baldintzak.

Ordainarazpenak erroldatu, matrikulatu edo erregistratu egingen dira, beren ezaugarriak direla medio zerga-egitateen jarraitutasuna eragiten badute.

Subjektu pasiboa

10. artikulua.- 1) Subjektu pasiboa pertsona natural edo juridiko oro da, baldin eta legeekin bat tributu-prestazioak betetzeko betebeharrak badu, dela zergadun dela haren ordezkari gisa.

Zergaduna pertsona natural edo juridiko oro da, baldin eta legeek ezartzen badiote zerga-egitateak sorrarazitako tributuaren zama.

Zergadunaren ordezkaria subjektu pasibo oro da, baldin eta, legeek hala ezarrita eta zergadunaren ordezkari tributu-betebeharraren prestazio material eta formalak betetzera beharturik badago.

2) Betebeharrak sortzen duen gertakari edo elementu berean hainbat tributu-betebeharpeko biltzen badira, denak solidarioki daude beharturik betebeharrak horretan sartzen diren prestazio guztiak betetzera Udala Ogasunaren aurrean, salbu eta lege mailako arau batean espresuki besterik xedatzen bada.

Udala Ogasunak betebeharraren titularretatik soilik bakar baten nortasuna ezagutzen badu, huts-hutsik haren izenean egin eta jakinaraziko du ebazpena edo, kasua bada, tributu-likidazioa, eta titular horrek bere gain hartu beharko du betebeharrak guztia, non eta, betebeharrak dirua ordaintzea izanik, betebeharraren zatiketa eskatzen ez duen. Zatiketa hori egin ahal izateko, ezinbestekoa izanen da eskatzaileak aditzera ematea zein diren betebeharrak duten gainerako datu pertsonalak eta helbidea eta bakoitzari nolako proportzioa dagokion.

11. artikulua.- Subjektu pasiboaren posizioa eta tributu-betebeharraren gainerako elementuak ezin izanen dira aldatu partikularren egintza edo hitzarmenen ondorioz.

Halako egintza eta hitzarmenek ez dute eraginik izanen Udala Administrazioan, beraiekin dakartzaten ondorio juridiko-privatuak galarazi gabe.

Zerga-egoitza

12. artikulua.- Pertsona naturalen helbidea, tributuak dagokienez, beren ohiko etxebizitzarena izanen da; pertsona juridikoa, aldiz, beren elkarte-egoitzarena, betiere bertan baldin badituzte zentralizaturik kudeaketa administratiboa eta beren negozioen zuzendaritza. Horrela ez bada, aipatu kudeaketa edo zuzendaritza non kokatu eta leku hori joko da zerga-egoitzatzat.

Udala Administrazioak beren egoitza fiskala aitortu dezatela galdatzen ahalko die subjektu pasiboari. Subjektu pasibo batek helbidea aldatzen duenean, Udala Administrazioari jakinarazi beharko dio, horretarako esanbidezko aitortpena egingez, baina helbide-aldaketak ez du ondorioz sortuko administrazioaren aurrean

tributu-aitorpen hori aurkezten ez den arte. Administrazioak subjektu pasiboen tributu-egoitza aldatzen ahalko du, behar den bezala egiaztatuta.

Karga-oinarria

13. artikulua.- Tributuei buruzko ordenantzetan zorra zehazteko oinarritzat zerga-oinarriak hartzen badira, oinarri horiek zehazteko behar diren bitartekoak eta metodoak paratuko dira.

14. artikulua.- Likidazio-oinarritzat zerga-oinarrian kasuan kasuko murriztapenak egin eta horren emaitza hartuko da, murriztapena horiek tributua arautzen duen legean edo dagokion ordenantza fiskalean xedaturik badaude.

Kuotaren zehaztapena

15. artikulua.- Tributu-kuota hauetako bat izanen da, betiere dagokion ordenantza fiskalaren arabera:

- a) Horretarako ezarritako kopuru finkoa.
- b) Tarifa bat aplikatu eta horren ondoriozko kopurua.
- c) Bi prozedura horiek batera aplikatu eta horien ondoriozko kopurua.
- d) Oinarriari karga-tasa bat aplikatu eta horren ondoriozko kopurua.
- e) Kontribuzio berezietan, subjektu pasibo bakoitzari kasuan kasuko ordenantza arauemailean jasotako banatze-irizpideei jarraituta zerga-oinarri zati bat egotzi eta horren ondoriozko kopurua.

Tributu-zorra

16. artikulua.- Tributu-zorra subjektu pasiboak Udal Administrazioari zor dion diru-kopurua da; kopuru horrek tributu-kuota hartzen du barne, eta, kasuan-kasuan, honako kontzeptu hauek ere:

- a) Oinarrien edo kuoten gainean legez galdatzen ahal diren errekarquak.
- b) Berandutze-interesa, zein alditan sortua den eta horretan berean indarra duena.
- c) Tributuei buruzko Foru Lege Orokorreko 52. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitako errekarquak.
- d) Epe exekutiboko errekarquak.
- e) Zerga-izaera duten diru-zehapenak.

Erantzukizuna tributu-zorra ordaintzean

17. artikulua. 1) Erantzukizunak borondatezko ordainketa egiteko zordunari ezarritako aldiaren dagoen tributu-zor osoa hartuko du, Ordenantza honen 20. artikuluan 4. apartatuan xedatutakoa salbu utzita.

Borondatez ordaintzeko epea iragan eta erantzuleak diru-sarrerarik egin ez badu, epe exekutiboa hasiko da, eta zorra premiamendu bidez galdeginen da bidezkoak diren errekarquak eta interesekin batera.

Erantzukizunak ez die eraginen zehapenei, salbu legeetan ezartzen diren salbuespen-kasuetan.

- 2) Lege batek ez badu besterik espresuki agintzen, erantzukizuna subsidiarioa izanen da beti.

18. artikulua.- 1) Betiere, erantzuleei tributu-zorren ordainketa exijitzeko administrazio-ekintza desbideratzeko, administrazio-egintza bat beharko da, non, interesdunei entzunaldia eman ondoren, erantzukizuna eta haren mota deklaratu eta haren zenbaterainokoa zehaztuko baita

Egintza hori jakinarazi egiten zaie –likidazioaren elementu funtsezkoak adieraziz– erregelamendu bidez finkatzen den moduan, eta ordutik aurrera zordun nagusiaren eskubide guztiak izanen dituzte.

Erantzukizunaren deklarazioari buruzko erabakiaren kontrako erreklamazio edo errekurtsuaren bidez, zor-eskaera egiteko bidea ematen duen egintzaren oinarriaz gainera, oinarri horrek iristen dituen likidazioak ere aurkaratzen ahalko dira. Errekurtso edo erreklamazio horien ondorioz, berriz, ezin izanen dira berrikusi beste zergadunentzat irimo bilakatu diren likidazioak, ezpada errekurtsua edo erreklamazioa aurkeztu duen erantzulearen beharkizunaren zenbatekoa.

Dena dela, Ordenantza honen 20. artikuluan 4. apartatuan ezarritako kasuetan, ezin izanen dira aurkaratu oinarri horrek iristen dituen likidazioak, erantzukizunaren zenbateko osoa baizik.

Orobat, aipatu artikuluan aurreikusitako kasuetan, ez dira besterik gabe etenen –errekurtsorik izanez gero– desbideratua izan den tributu-zorrek eragindako erantzukizunak, nahiz eta zorra tributu-zehapenetatik etorri.

2) Administrazio-ekintza erantzule subsidiarioengana desbideratzeko, aurretiaz zordun nagusia eta beste erantzule solidarioak huts egindakotzat deklaratu beharko dira, deklarazio hori baino lehen aurreikusitako lege-esparruan har daitezkeen kautelazko neurriak ezertan galarazi gabe.

19. artikulua.-1) Zor beraren erantzule solidario edo subsidiarioak bi edo gehiago badira, zilegi izanen da zor hori haietako edozeini osorik eskatzea.

2) Erantzuleak eskubidea izanen du berak ordaindutako edo bere ondarearen kargura berdinduriko kuotak zordun nagusiari (dela zergaduna, ordezkua edo tributu-zorren oinordekoa) eskatzeko. Pertsona batzuek gradu bereko erantzukizuna, solidarioa edo subsidiarioa, daukatela deklaratu baldin bada, kuota ordaindu dutenek atzerabideko akzioa erabiltzen ahalko dute gainontzeko erantzuleen aurka.

20. artikulua.-1) Tributu-betebeharren erantzule solidario izanen dira tributu-arloko arau-hauste baten egile edo laguntzaile izan diren pertsona guztiak.

2) Aitorpena bateratua baldin bada, taldeko sozietateak tributu-zorraren erantzule solidario izanen dira, zehapenen kasuan salbu.

3) Tributu-entitate buruzko Foru Lege Orokorraren 25. artikulua aipatzen dituen entitate juridiko edo ekonomikoen partaide edo titularkideak entitate horien tributu-betebeharren erantzule solidario izanen dira, haietan duten partaeren proportzioan.

4) Ondoren aipatzen diren pertsona edo entitate hauek tributu-zorraren eta, bidezkoa bada, tributu arloko zehapenen erantzule subsidiarioak izanen dira, eta epe exekutiboko errekarua eta berandutze-interesak ere ordaindu beharko dituzte, Udaleko tributu-administrazioak bahitu edo besterentzen dituen ondasunen edo eskubideen balioa berdindu arte:

a) Udaleko tributu-administrazioaren lana galarazteko asmoz ordaintzera beharturik dagoenaren ondasunak edo eskubideak eskualdatzen edo ezkutatzeko dituztenak edo horretan laguntzen dutenak.

b) Beren erruz edo zabarkeriaz bahitzeko aginduak betetzen ez dituztenak.

c) Bahituraren nahiz kautelazko neurri baten edo eraturako berme baten jakitun izanda onartzen dutenak hala bahitutako ondasun edo eskubideak nola kautelazko neurriaren edo bermearen xede diren ondasun eta eskubideak ostentzea, edo horretan laguntzen dutenak.

d) Zordunaren ondasunak gordetzen dituzten pertsona edo entitateak, bahituraren jakinarazpena jaso ondoren ondasunen ostentzea onartzen edo eginkizun horretan laguntzen dutenak.

21. artikulua.- 1) Zilegi izanen da pertsona fisiko nahiz juridikoak eta Tributu-entitate buruzko Foru Lege Orokorraren 25. artikulua aipatzen dituen erakundeak ustiategi eta jarduera ekonomikoetan aritzearen ondorioz sortzen diren tributu-zor eta -erantzukizunak edozein arrazoi dela kausa hurrengo titular edo erabilzaile bihurtzen direnei eskatzea, lege zibilek herentzia eskuratzeko xedatzen dutena ezertan galarazi gabe.

Erantzukizun mota hau ez zaie aplikatuko zordun konkurtsorik baten ustiapen edo jarduera ekonomikoen titulartasunaren eskuratzailerik, erorketa konkurtsu-prozedura baten bidez egin baldin bada.

2) Erantzukizuna ustiapen eta jardueretan aritzeagatik sortzen diren zorretara hedatuko da, likidatuetara zein likidatzeke daudenetara, are haietatik ateratako errentetara ere. Zor diren konturako diru-sarrerak eta egindako edo egin beharreko atxikipenak ez ordaintzetik datozen betebeharrak guztietara ere hedatuko da, bai eta ezarritako edo ezarritako diren zehapenetara ere.

3) Eskuratzaileraren erantzukizuna solidarioa da, eta ez du eskualdatzailea bere tributu-betebeharretatik askatzen.

4) Ustiategi edo jarduera ekonomikoaren titulartasuna eskuratu nahi duenak zilegi izanen du, une horretan titularrak dena ados badago, Administrazioari eskatzea ustiategi edo jardueran aritzeak sortu dituen tributu-zor eta -erantzukizunen ziurtagiri xehatua. Ziurtagiri horren edukia negatiboa bada, edo bi hilabeteko epean ematen ez bada, artikulua honetan ezartzen den erantzukizunetik libre egonen da hura.

22. artikulua.- 1) Tributu arloko arau-hauste bakunen eta -pertsona juridikoek egindako arau-hauste larrien kasuan- tributu-zor osoaren erantzule subsidiario izanen dira horien erantzule edo zuzenbidezko administratzaileak, hautsitako tributu-betebeharren betebeharrak betetzeko beraiei dagozkien ekintza beharrezkoak egin ez badituzte, beren menpekoek betebeharrak ez betetzea onartu badute, edo arau-hauste horiek ahalbidetu dituzten erabakiak hartu badituzte.

Halaber, eta edozein kasutan, beren jarduerari utzi dioten pertsona juridikoek betetzeko dituzten tributu-betebeharren erantzule subsidiarioak beren izateko edo zuzenbidezko administratzaileak izanen dira.

Agindu honetan aurreikusten denak ez die ezertan eragiten tributu-entitate buruz indarrean den legeriak aurreikusten dituen beste erantzukizun kasuei.

2) Erantzule subsidiarioak izanen dira kasuan kasuko konkurtsu-administrazioko kideak -eta, oro har, sozietate edo entitateen likidatzaileak ere-, baldin eta, zabarkeria edo fede gaiztoa direla medio, ez badituzte beharrezkoak diren gestioak egin, halako egoerak baino lehenago sortu eta kasuan kasuko subjektu pasiboak egotz dakizkiekeen tributu-betebeharren oso-osorik betetzeko. Egoera horien ondoren eska daitezkeen tributu-betebeharrei eta egoera horien ondoren ezar daitezkeen zehapenei dagokienez, administratzaile gisa erantzunen dute, administrazio-eginkizunak esleituak badituzte.

23. artikulua.- Honako hauek ere tributu-zorraren eta, bidezkoa bada, tributu-arloko zehapenen erantzule solidarioak izanen dira:

a) Pertsona juridikoen benetako kontrola, erabatekoa edo partziala, zuzenean edo zeharka duten pertsona edo entitateak, edo haiekin batera aritzeko asmoa dutenak, betiere frogatzen baldin bada pertsona juridikoak gehiegikeriaz edo iruzurrez sortu edo erabili direla Ogasun Publikoaren aurrean dagoen ondare-erantzukizun unibertsal saileratzeko, eta pertsonen edo esparru ekonomikoen bakartasuna badago, edo ondare-nahaste edo -desbideratzea. Erantzukizuna galdagarri diren tributu-zorretara eta pertsona juridiko horiei ezartzen ahal zaizkien zehapenetara hedatuko da.

b) Tributu-betebeharpekoek osorik edo parte batean benetan kontrolatzen dituzten pertsona edo entitateak edo tributu-betebeharpekoekin batera aritzeko asmoa erakutsi dutenak tributu-betebeharpeko horien tributu-betebeharrak direla medio, frogatzen baldin bada pertsona edo entitate horiek gehiegikeriaz edo iruzurrez sortu edo erabili direla Ogasun Publikoaren aurrean dagoen ondare-erantzukizun unibertsala saihesteko, eta pertsonen edo esparru ekonomikoen bakartasuna badago, edo ondare-nahastea edo -desbideratzea. Halako kasuetan, erantzukizuna zehapenetara ere hedatuko da.

Tributu-zorraren iraungipena

24. artikulua.- Tributu-zorra honako hauek direla medio iraungiko da:

- a) Ordaindu edo bete delako.
- b) Preskribatu duelako.
- c) Kaudimengabezia frogatu delako.
- d) Konpentsazio bidez.

25. artikulua.- 1) Edonola ere, lau urteko epean preskribatuko dute eskubide eta ekintza hauek:

a) Tributu-zorra dagokion likidazioaren bidez zehazteko eskubidea, betiere epea sortzapen-egunetik aurrera kontatzen hasita.

b) Likidaturiko tributu-zorrak ordaintzea exijitzeko ekintza, betiere epea borondatez ordaintzeko epea noiz amaitu eta egun horretatik aurrera kontatzen hasita.

c) Tributuei dagozkien arau-hausteak direla medio zehapenak ezartzeko ekintza, betiere epea arau-hausteak noiz gertatu eta egun horretatik aurrera kontatzen hasita.

2) Orobat, lau urteko epean preskribatuko du beharrik gabe egin duten ordainketen itzulera jasotzeko zergadunek duten eskubideak, non epea hasiko baita ordainketa egin den egunean.

3) Preskripzioa eteten baldin bada, lau urteko epea etena noiz gertatu eta egun horretatik aurrera kontatuko da.

26. artikulua.- 1) Aurreko artikulua 1. apartatuak aipatzen duen preskripzio-epea honako kasu hauetan eteten da:

a) Edozein administrazio-ekintza egiten bada, subjektu pasiboa formalki jakinaren gainean dagoela, kreditu edo eskubide hori aitortu, erregularizatu, ikuskatu, segurtatu, egiaztatu, likidatu eta jasotzeko asmotan.

b) Edonolako erreklamazioak edo errekursoak jartzen badira.

c) Subjektu pasiboak tributu-zorra ordaindu edo likidatzeko edozein jarduketa egiten badu.

2) Aurreko artikulua 2. apartatuko preskripzio-epea eten egiten da, baldin eta subjektu pasiboak edonolako egintza frogagarria egiten badu diru-sarrera okerra itzultzeko, edo Udal Administrazioak edozein egintza egiten badu halakorik badela aitortuta.

27. artikulua.- Ofizioz aplikatuko da preskripzioa, subjektu pasiboak eskatu edo salbuespenik aurkeztu gabe.

28. artikulua.- Subjektu pasiboaren eta gainerako erantzuleen kaudimengabezia ziurtatua dela bide burutu ezin izan diren tributu-zorrak behin-behinek iraungitzat deklaratu dira, preskripzio-epearen barnean birgaitzen ez diren bitartean. Epe hori akiturik zorra birgaitzen ez bada, behin-betiko iraungiko da.

Gerora kaudimena sortuz gero, eta preskripziorik ez balego, betearazpen-prozedura irekiko da berriz. Erabaki hori hartu ahala jakinaraziko zaio dagokion bulego kudeatzaileari, baja emanda duten kredituen likidazio berria egin dezan, kasuan kasuko betearazpen-titulua emate aldera, kaudimengabezia deklaratu zen momentuan zeuden kobrantza-egoera berean eman ere.

IV. KAPITULUA. TRIBUTU-ARLOKO ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Tributu-arloko arau-hausteak

29. artikulua.- 1) Tributu-arloko arau-hausteak dira bai Ordenantza honetan bai toki-entitateen ogasuna arautzen duten lege-xedapenetan tipifikatzen eta zehatzen diren egintzak eta ez-egiteak. Arau-hausteak axolagabekeria hutsezkoak izanik ere zehatzen ahal dira.

2) Subjektu arau-hausletzat joko dira legez arau-haustetzat tipifikatutako egintzak edo ez-egiteak burutzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Tributuen subjektu pasiboak, zergadunak nahiz ordezkioak izan.

b) Egintzarako gaitasunik ez duten subjektu pasiboen legezko ordezkariak.

c) Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 62. artikulua xedatutakoari jarraikiz, Administrazioari informazioa eta laguntza emateko betebeharrak duten pertsona fisikoak nahiz juridikoak.

3) Legeek arau-haustetzat tipifikatzen dituzten egintzek edo ez-egiteek ez dute erantzukizunik sortuko honako kasu hauetan:

a) Tributu-gaietan jarduteko gaitasunik ez dutenek eginak bada.

b) Ezinbesteko kasua bada.

c) Erabakia askoren artean hartua bada, beren botoa salbuetsi zutenen edo erabakia hartu zeneko bileran egon ez zirenen kasuan.

4) Aurreko apartatuak aipatzen dituen kasuetan, subjektu pasiboen edo beharturik dauden gainerakoen tributu-egoera erregularizatzean behar den berandutze-interesa eskatuko da, egoki diren kuota eta errekarquez gain.

5) Toki Administrazioak arau-hausteak Ogasun Publikoaren kontrako delituak izan daitezkeela deritzon kasuetan, jurisdikzio eskudunari jakinaraziko dio dagokiokeen errua, eta administrazio-prozedura etenen du, epaileek epai irmoa eman, jarduketak artxibatu edo Ministerio Fiskalak espedientea itzuli arte.

Epaileek zigor-epaia emateak administrazio-zehapena baztertuko du.

6) Hautematen bada deliturik ez dagoela, Udal Administrazioak bere jarduketak hasi edo jarraituko ditu, epaitegiek frogatutzat jotzen dituzten egitateak aintzat hartuz, eta preskripzio-epea berriz kontatzen hasiko da, kontaketa eten zen une beretik aurrera. Etenaldia bitartean egindako administrazio-jarduketak egin izan ez balira bezala hartuko dira.

7) Udal Administrazioak ez du erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunera igorriko, ez eta espedientea Fiskaltzara ere, egiaztatzen bada tributu-betebeharpekoak erregularizatu duela bere zerga-egoera, tributu-zorra osorik onartu eta ordainduta, erregularizazioaren xede den tributu-zorra zehazteko egiaztapen- edo ikerketa-jarduketak hasi direla jakinarazi aurretik, edo, halako jarduketak gertatu ez badira, Fiskaltzak, Estatuko abokatuak edo Udal Administrazioaren ordezkari prozesalak tributu-betebeharpekoaren kontra zuzendutako kereila edo salaketa aurkeztu aurretik, edo, eginbideak hasi direla modu formalean jakiteko bide emateko, Fiskaltzak edo Instrukzioko epaileak jarduketak egin aurretik.

Halaber, aurreko paragrafoan aipatzen den erregularizazioaren ondorio berak aplikatzen ahalko dira tributu-zorrak ordaintzen badira Administrazioak haiek zehazteko daukan eskubidea preskribatutakoan.

30. artikulua.- Arau-hausteak honelakoak izan daitezke:

a) Arinak.

b) Astunak.

31. artikulua.- Arau-hauste arintzat hartzen da tributuen kudeaketan edozein pertsonari, subjektu pasiboa izan ala ez, eskatzen zaizkion tributu-eginbideak edo -betebeharrak ez betetzea, hori arau-hauste astuna ez bada, eta zehapena graduatzeko osagai gisa hartzen ez bada.

32. artikulua.- Arau-hauste astunak hauek dira:

a) Tributu-zor osoa edo horren parte bat ez ordaintzea legeek edo kasuan kasuko ordenantzek ezarritako epeetan, salbu hori Ordenantza honen 76.2. artikuluaekin bat arautzen bada edo Ordenantza honen 75. artikuluan aurreikusitako interes eta errekarque aplikazioa bidezkoa bada.

b) Salbuespenak, onura fiskalak edo itzulkinak bidegabe gozatu edo erdiestea.

c) Autolikidazio-prozeduraren bidez exijitzen ez diren tributuko toki-entitateak likidatu ahal izateko behar dituen aitorten edo agiriak ez aurkeztea edo, alde aurretik eskatuta, epez kanpo aurkeztea, edo osatu gabe edo era okerrean.

Zehapenak

33. artikulua.- 1) Arau-hausteak zigortzeko, diru-isunak jarriko dira, finkoak edo proportzionalak. Diru-isun proportzionala tributu-kuotaren, ordaindu gabeko kopuruen edo behar ez bezala lorturiko irabazi edo itzulketen zenbatekoaren gainean aplikatuko da.

2) Arau-hauste arin bakoitzari, 6,01 eta 901,52 euro bitarteko zehapena ezarriko zaio.

3) Ikuskatzaileen jardunari, haien eskumenak erabiltzen ari direlarik, kontra, uko edo traba egiten bazaio – Udal Administrazioak eskatutako frogak eta kontabilitate-agiriak ez aurkeztea edo horiek erakusteari uko egitea barne–, 300,51 eta 6.010,12 euro bitarteko isuna ezarriko da.

4) Tributu-arloko arau-hauste astunei diruzko isun proportzionala jarriko zaie, kuotaren zenbatekoaren ehuneko 50etik ehuneko 150era bitartekoa, eta ezertan galarazi gabe 35. artikulua 3. apartatuan aipatutako murriztapena.

Orobat, zilegi izanen da berandutze-interesak eskatzea, borondatezko epea bukatzen denetik tributu-egoera erregularizatutako duen likidazioa egiten den egunera bitarteko aldirako.

Zehapenen mailaketa

34. artikulua.- Arau-hauste arinei dagozkien zehapenen mailaketa.

1) Tributu-arloko arau-hauste arinek eragindako zehapenak honako hauek aintzat hartuta mailakatuko dira, kasuan-kasuan:

a) Tributu-arloko arau-hausteak behin eta berriz egin diren. Hori horrela ulertuko da subjektu arau-haustea tributu-arloko arau-hauste arina egiteagatik zehatu badute administrazio-ebazpen irmoaren bitartez, espedientearen xedea den arau-haustea noizkoa den eta bost urte lehenagoko aldian. Inguruabar hori gertatuz gero, gutxieneko zehapenaren ehunekoari aurreko bost urteetan egindako arau-hauste arinengatik ezarritako zehapen irmo bakoitzari dagokion gehieneko zehapenaren ehuneko jakin batek jotzen duen kopurua gehituko zaio, betiere honako irizpide hauekin bat:

- Aurretik arau-hauste bat izanez gero, % 25.
- Aurretik bi arau-hauste izanez gero, % 35.
- Aurretik hiru arau-hauste izanez gero, % 45.
- Aurretik lau arau-hauste edo gehiago izanez gero, % 50.

- Zehapen irmoa beste mota bateko tributu-arloko arau-hauste bat egiteagatik bada –hori zehatzen denaren izaera berekoa delarik–, zehapenari % 15 gehituko zaio, eta mota bereko arau-hauste bakoitzeko bi edo gehiago badira, % 10, betiere, gehienez, % 50 gehitzen ahal delarik.

b) Toki-entitatearen ikerketa-lanei trabak jarri, uko edo aurka egin zaien. Hori horrela dela ulertuko da tributu-betebeharpekoek, behar bezala jakinarazi eta ohartarazita ere, ez badiete erantzuten Udal Administrazioak egindako errekerimenduei tributuez bezainbatean garrantzia duten datu, txosten edo aurrekariak eman ditzaten. Inguruabar hori gertatuz gero, aurreikusitako gutxieneko zehapenari gehieneko zehapenak zenbat jo eta horren % 20 eta % 40 bitartekoa gehituko zaio. Gainera, tributu-betebeharpekoak alde aurreko errekerimenduei erantzun ez badie, zenbatekoa honela handituko da:

- a) 300 euro, errekerimendua bigarren aldiz bete ez bada.
- b) 600 euro, errekerimendua hirugarren aldiz edo ondokoetan bete ez bada.

c) Arau-haustea egitean iruzurrezko bideak erabili diren edo hura egiteko bitarteko norbait erabili den. Ondorio horietarako, iruzurrezko bidetzat joko dira kontabilitatean funtsezko irregularitasunak izatea eta faktura, egiaztagiri edo bestelako agiri edo euskarri faltsu edo faltsutuak erabiltzea. Inguruabar hori gertatuz gero, aurreikusitako gutxieneko zehapenari gehieneko zehapenak zenbat jo eta horren % 25 gehituko zaio.

d) Formazko betebeharrak edo laguntza ematekoak nork bere kabuz bete ez dituen, edo berandu bete dituen. Inguruabar hori gertatuz gero, aurreikusitako gutxieneko zehapenari gehieneko zehapenak zenbat jo eta horren % 5 gehituko zaio –betebeharra betetzen hiru hilabetetik gora berandutu ez bada–, % 10 –berandutzea hiru hilabetetik seira bitartekoa bada– edo % 15 –berandutzeak sei hilabetetik gora jotzen badu–.

e) Zer garrantzi duten, tributu-kudeaketaren eraginkortasunerako, eman ez diren datu, txosten edo aurrekariak eta, oro har, formazko eginbeharrak, kontabilitate- edo erregistro-eginbeharrak eta Udal Administrazioari informazioa edo laguntza emateko betebeharra bete ez izanak.

2) Mailakatze-irizpideak aldi berean aplika daitezke. Ezarri beharreko zehapenak zenbat jotzen duen zehazteko, gutxieneko zehapenari aurreko ataletan aplikatuzetik sortzen diren zenbatekoak gehituko zaizkio, betiere hortik ateratako zenbatekoak ezin izanen dituelarik gainditu legeek aurreikusitako gehieneko zenbatekoak.

35. artikulua.- Tributu-arloko arau-hauste astunei dagozkien zehapenen mailaketa.

1) Tributu-arloko arau-hauste astunek eragindako zehapenak honako hauek aintzat hartuta mailakatuko dira, kasuan-kasuan:

a) Tributu-arloko arau-hausteak behin eta berriz egin diren. Horrelakotzat joko da subjektu arau-haustea tributu-arloko arau-hauste astuna egiteagatik zehatu izana, administrazio-ebazpen irmoaren bitartez, espedientearen xedea den arau-haustea noizkoa den eta bost urte lehenagoko aldian.

Inguruabar hori gertatuz gero, zehapenaren ehunekoari 10 puntu gehituko zaizkio tributu berari dagokion tributu-arloko arau-hauste astun bat egiteagatik ezarritako zehapen irmo bakoitzeko, eta 5 puntu, beste tributuei dagokien tributu-arloko arau-hauste astun bat egiteagatik ezarritako zehapen irmo bakoitzeko. Zehapenaren ehunekoaren gehikuntza ezin izanen da 10 puntu baino gutxiagokoa izan, ezta 50 baino gehiagokoa ere.

b) Toki-entitatearen ikerketa-lanei trabak jarri, uko edo aurka egin zaien. Hori horrela dela ulertuko da tributu-betebeharpekoek, behar bezala jakinarazi eta ohartarazita ere, ez badiete erantzuten Udal Administrazioak egindako errekerimenduei beren tributu-egoera erregularizatzeko abiatutako egiaztapen- eta ikerketa-jarduketetan –baldin eta horietan agerian gelditzen bada arau-hauste astunak egin dituztela–. Halako inguruabarrak gertatuz gero, zehapenaren ehuneko 20 eta 60 puntu bitarte gehituko da, honako irizpide hauekin bat:

- Subjektu pasiboak behin eta berriz uko egiten badio prozeduran zehar eskatu dizkieten eta tributuez bezainbatean garrantzia duten datu, txosten edo aurrekariak aurkezteari, eta, horren ondorioz, Udal Administrazioak ezin badu eskatutako informazioaren berri izan, zehapenaren ehuneko 35 eta 50 puntu artean gehituko da.

- Subjektu pasiboa ez bada agertzen dena delako organoaren aurrean gutxienez horretara hiru aldiz deitua izan eta gero, zehapenaren ehunekoak 30 eta 40 puntu artean gehituko da. Baldin eta behin eta berriz ez agertzeagatik egoera erregularizatu behar bada tributu-betebeharpekoa bertan egon gabe, zehapenaren ehunekoak 50 eta 60 puntu artean gehituko da.

- Kontra, uko edo traba egiteari dagokionez aurrekoen besteko kasuetan, zehapenaren ehunekoak 20 eta 30 puntu artean gehituko da.

c) Arau-haustea egitean iruzurrezko bideak erabili diren edo hura egiteko bitarteko norbait erabili den. Ondorio horietarako, iruzurrezko bidetzat joko dira kontabilitatean funtsezko irregulartasunak izatea eta faktura, egiaztagiri edo bestelako agiri edo euskarri faltsu edo faltsutuak erabiltzea. Halako inguruabarrak gertatuz gero, zehapenaren ehunekoak honako irizpide hauekin bat gehituko da:

- 20 eta 45 puntu artean, kontabilitatean funtsezko irregulartasunik izanez gero.

- 25 eta 40 puntu artean, faktura, egiaztagiri edo bestelako agiri edo euskarri faltsurik edo faltsuturik erabiliz gero. Hori ez da horrela interpretatuko, faltsututako agiriek edo euskarriek batera hartuta horien eraginak atzemandako tributu-zorren % 10 baino gutxiago jotzen badu.

- 35 eta 50 puntu artean, arau-haustea egiteko bitarteko pertsona bat erabili bada.

Irizpide horiek zein bere aldetik hartuko dira kontuan, eta zein bere kabuz aplikatuko dira zehapenaren ehunekoan zenbat gehitu behar den zehazteko. Zehapenaren ehunekoan gehitu beharreko zenbatekoa gehikuntza guztiak batuta zehaztuko da, hori, gehienez ere, 75 puntukoak izaten ahalko delarik.

d) Aitorpenik aurkeztu ez den edo aitorpen faltsu, osagabe edo zehaztugabeak aurkeztu diren, horrek tributu-zorra gutxitzea badakar berekin. Halakotzat joko da arrazoi horregatik Udal Administrazioari tributu-zorra zehazteko beharrezkoak diren datuak ezkutatzea – horrek zorra gutxitzea badakar berekin– eta horrela ulertuko da nahiz eta Administrazioak datu horien berri izaten ahal duen, dela hirugarrenen adierazpenen bitartez dela zehapenari dagokionaz besteko tributu-kontzeptuen gainean subjektu arau-hausleak egindako adierazpenen bidez, eta datuak kontabilitatean jasota egonda ere. Arau-hauste astun baten kasuan inguruabar hori gertatuz gero, zehapenaren ehunekoak 10 eta 25 puntu artean gehituko da, eta hori ezkutatutako datuek tributu-zorra zenbatean gutxitu eta horren arabera zehaztuko da, honako irizpide hauekin bat:

- % 10 edo gutxiago gutxituz gero, ez da zehapena handituko.

- % 10etik gora eta % 25era bitarte gutxituz gero, 10 puntu gehituko dira.

- % 25etik gora eta % 50era bitarte gutxituz gero, 15 puntu gehituko dira.

- % 50etik gora eta % 75era bitarte gutxituz gero, 20 puntu gehituko dira.

- % 75 baino gehiago gutxituz gero, 25 puntu gehituko dira.

Inguruabar hori ez da kontuan hartuko, subjektu arau-hausleak bere aitorpenean tributu-zorra zehazteko beharrezkoak diren datu guztiak adieraziak izan eta tributu-arauak oker aplikatu dituelako gutxitu bada zorren zenbatekoa. Inguruabarra ez da, ezta ere, kontuan hartuko, jokamoldea bada Ordenantza honen 32. artikulua c) letran arau-hauste astuntzat tipifikatutakoa.

2) Mailakatze-irizpideak aldi berean aplikatu daitezke. Ezarri beharreko zehapenak zenbat jotzen duen zehazteko, gutxieneko zehapenaren ehunekoari aurreko ataletan xedatutakoa aplikatuzetik sortzen diren ehunekoak gehituko zaizkio. Mailakatze-irizpideak gutxieneko diru-zehapenei aplikatuko zaizkie, betiere hortik ateratako zenbatekoek ezinen dituztelarik gainditu legeek aurreikusitako gehienezko zenbatekoak.

3) Tributu-arloko arau-hauste astunengatik ezarritako zehapenaren zenbatekoa % 30 gutxituko da, subjektu arau-hausleak edo, halakorik bada, erantzuleak, aditzera ematen badu ados dagoela egin zaion erregularizazio-proposamenarekin. Murrizketak % 40 joko du, bat etortzen badira hala erregularizazio- nola zehapen-proposamenekin.

Zehapen-prozedura

36. artikulua.- 1) Tributu-zehapenak ezartzeko espedienteak ez da izanen subjektu arau-hauslearen tributu-egoera egiaztatuz eta ikertzeko instruitutako bera, baizik eta beste bat, halakoa non, betiere, interesdunari entzunen baitzaio.

2) Egiaztapen- eta ikerketa-prozedura baten ondorioz hasi beharreko zehapen-prozedurak ezin izanen dira hasi, behin sei hilabeteko epea pasatu denean kasuan kasuko likidazioa jakinarazi zenetik edo jakinarazitzat jo behar izan zenetik.

3) Zehapenak tributuen behin-behineko edo behin betiko likidazioak burutzeko egintza administratiboak eman behar dituzten organo berek erabaki edo ezarriko dituzte.

4) Zehapen-espedienteak ebazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izanen da.

Erantzukizunaren iraungitzea

37. artikulua.- 1) Arau-hausteeak sortzen duten erantzukizuna zehapena ordaindu edo betetzean iraungitzen da, preskribatuta.

2) Subjektu arau-hausleak hiltzean burutu gabe dauden tributu-eginbeharrak oinordeko edo legatudunei eskualdatuko zaizkie, lege zibiletan herentzia eskuratzeari buruz finkatutakoa galarazi gabe. Zehapenak ezin dira, inolaz ere, eskualdatu.

3) Sozietateak edo entitateak deuseztatu eta likidatu diren kasuetan, horien tributu-betebehar burutu gabeak bazkide edo kapital-partaideei eskualdatuko zaizkie, eta horiek elkarrekin eta batera erantzunen diete haiei, esleitu zaien likidazio-kuotaren balioak zenbat jo eta horrenbestearaino erantzun ere.

V. KAPITULUA. KUDEAKETA-ARAUAK

Tributu-kudeaketarako hasierako erak

38. artikulua.- Tributuen kudeaketa hauen bidez hasiko da:

- a) Aitorpena, aitorpen-likidazioa edo autolikidazioa egitean, edo tributu-betebeharpekoen ekimenez.
- b) Ofizioz.
- c) Ikerketa bidez.

Tributu-aitorpena

39. artikulua.- a) Tributu-aitorpenentzat hartuko da zerga-egitate baten inguruabarrak edo elementuak gertatu edo sortu direla adierazi edo aitortzen duen agiri oro. Halaber, aitorpen-balioa izanen du zerga-egitate bat biltzen edo bere baitan hartzen duen agiriaren aurkezte hutsak.

b) Ez da inolaz ere exijituko aitorpen fiskalak zinpean egiteko.

c) Aitorpena aurkeztu ahala, aitorpena aurkeztu izanaren egiaztagiria emanen zaie interesdunei, halako eran non aitorpenaren kopiak egiaztagiri gisara balio baitezake.

d) Frogagiri bat aurkeztean, interesdunek kopia soil bat edo fotokopiaren bat atxikitzen ahal diote, hain zuzen ere Udal Administrazioak, hura erkatu ondoren, jatorrizkoa itzul diezaien, salbu prozedura ebatzi arte ezin zaiela itzuli jotzen badu, agiria pribatua delako edo legezko beste edozein arrazoi dela medio.

Aitorpena nahitaez aurkeztu beharra

40. artikulua.- Aitorpena nahitaez aurkeztu beharko da ordenantza bakoitzean zehaztutako epeetan, eta, oro har, zerga-egitatea noiz gertatu eta egun horren ondoko 30 egun balioduneko epearen barnean. Epez kanpo aurkeztea arau-hauste arintzat joko da, eta halakotzat zehatuko.

Aurkezpenaren ondorioak

41. artikulua.- a) Aitorpena Udal Administrazioari aurkezteak ez dakar berekin kargaren sorburua onartzea edo aitortzea.

b) Udal Administrazioak aitorpenak eska ditzake, bai eta horiek handitzea eta, orobat, nabari diren okerrak zuzentzea ere, ordainarazpena likidatu eta egiaztatze beharrezko den neurrian.

c) Aurreko apartatuan aipatzen diren eginbeharrei muzin egitea arau-hauste arintzat hartuko da, eta dagokion zehapena ezarriko zaio.

Tributuen likidazioa

42. artikulua.- a) Behin zerga-oinarriak zehaztuta, kudeaketak aurrera egingen du, tributu-zorra zedarrizteko likidazioa eginez. Likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izanen dira.

b) Behin-betikoak honako hauek izanen dira:

- Administrazioak aurrez zerga-egitatea ikerturik eta karga-oinarria egiaztatu ondoren egindakoak, behin-behineko likidaziorik izan den edo ez kontuan hartu gabe.

- Preskripzio-epearen barnean egiaztatu ez direnak.

c) Aurreko atalean adierazitako kasuetakoak kenduta, likidazioak behin-behinekoak izanen dira, konturakoak, osagarriak, kauziokoak, partzialak edo osokoak izanik ere.

43. artikulua.- a) Likidazioak egiterakoan, Udal Administrazioak tributu-aitorpenetan adierazitako egintzak, elementuak eta balorazioak oro egiaztatuko ditu.

b) Kudeaketa-organoek behin-behineko likidazioak ematen ahalko dituzte ofizioz, aitorpenetan adierazitako datuekin eta aitorpenarekin aurkeztutako edo berariaz eskatutako frogagiriekin bat. Halaber, ofizioz ematen ahalko dituzte behin-behineko likidazioak, baldin eta eskuetan dituzten froga-elementuek agerian uzten badute zerga-egitatea gauzatu dela, hori osatzen duten elementu batzuk aitortu ez direla edo badirela tributu-zorren zenbatekoa zedarrizteko elementu batzuk, aitortutakoez bestekoak direnak.

c) Halako likidazioak egiteko, kudeaketa-organoek behar diren egiaztatze laburtu guztiak egiten ahalko dituzte, baina inola ere ezin izanen dituzte enpresa-jardueren edo jarduera profesionalen kontabilitate-liburuak aztertu. Aurrekoa gorabehera, tributu-betebeharpekoek aurkeztu beharko dituzte –horrela eskatzen bazaie– tributu-arauetan ezarritako erregistro eta agiriak, izaera ofizialeko beste edozein liburu, erregistro edo agiri –merkataritzako kontabilitatearen kopiak barne– eta liburu, erregistro edo agiri horietan jasotako eragiketak frogatzeko balio duten fakturak eta agiriak.

d) Likidazioa eman aitzin, espedientea interesdunei erakutsiko zaie edo, hala behar baldin bada, haien ordezkariari, gehienez ere 15 eguneko epean, alegazioak egin eta egoki iruditzen zaizkien agiriak eta frogagiriak aurkeztu ahal izan ditzaten.

44. artikulua.- a) Likidazioak subjektu pasiboari jakinaraziko zaizkie, hauek adierazita:

- Haien funtsezko elementuak.
- Erabil daitezkeen aurkaratze-bideak, bai eta zer epetan eta zein erakundetan paratu behar diren ere.
- Tributu-zorra ordaintzeko tokia, epea eta modua.

b) Subjektu pasiboari araudiaren arabera jakinarazitako likidazioek orok behartuko dute subjektu pasiboari tributu-zorra ordaintzera.

c) Jakinarazpen akastunek indarra hartuko dute subjektu pasiboak jakinarazi zaiola espresuki onartu, dagokion errekurtsioa aurkeztu edo tributu-zorraren ordainketa egiten duen egunetik aurrera.

d) Dena den, subjektu pasiboari pertsonalki emandako jakinarazpenek sei hilabete igarota izanen dituzte ondoreak, baldin eta egintzaren testu osoa izan arren beste beharkizunen bat bete gabe utzi badute, salbu epe horretan protesta formalak egin bada Administrazioak akatsa zuzendu dezan eskatuz.

45. artikulua.-1) Subjektu pasibo batek eta berak ordaindu beharreko tributuen likidazioak egintza batean bateratzen ahalko dira; kasu horretan, kontzeptu guztien oinarriak eta tasak edo kuotak adierazi beharko dira likidazioan, halako eran non metatzen diren likidazioak oro zehazturik eta banakatuta geldituko baitira.

2) Subjektu pasibo baten zorren likidazioa gauzatzeko egintzak jakinarazi egingen dira, baldin eta zor horiek metatuta egiten duten zenbatekoak gainditzen badu gutxieneko kostu estimatua –25 euro–.

Autolikidazioa

46. artikulua. – 1) Autolikidazioa aitorten-mota bat da non tributu-betebeharpekoak, Administrazioari tributua likidatzeko behar diren datuak eta beste datu informatibo batzuk jakinarazteaz gain, tributu-zorra zehaztu eta ordaintzeko egin behar diren eragiketak –zorra nondik sortzen den nahiz zenbat egiten duen zehaztekoak– bere kabuz egiten baititu, edo, hala badagokio, itzuli edo konpentsatu behar zaion kopurua zehazten baitu.

2) Tributu-betebeharpekoek, baldin eta tributuen ordenantza partikularrek autolikidazio-sistema onartzen badute, tributu-zorraren likidazio-aitorpena aurkeztu beharko dute, eta zenbatekoa ordaindu, baimendutako entitate laguntzaileen bidez, betiere dagokien ordenantzak zein epe zehaztu eta horren barruan.

3) Tributu-betebeharpekoek aurkeztutako autolikidazioak behin-behinekoak izanen dira, eta egiaztatzen zein begiratzen ahalko dira. Udal Administrazioak, beharrezkoa izatera, behar den likidazioa egingen du, betiere aitorpenean adierazitako datuekin, horri erantsitako agiriekin eta dituen aurrekariekin bat. Baldin eta subjektu pasiboak tributu-arloko arau-haustea egin badu, kasuan kasuko zigor-espedientea irekiko da.

4) Baldin tributu-betebeharpeko batek uste badu autolikidazio batek bere interes legitimoak nolabait kaltetu dituela, autolikidazio hori zuzentzeko eskatzen ahalko du. Subjektu pasiboak likidatu behar zen kuota baino handiago bat ordaintzera bultzatu duen autolikidazio bat zuzendu behar izanez gero, Udalak okerreko diru-sarrerak itzuliko ditu, bai eta berandutze-interesa ere.

47. artikulua.- 1) Tributu-betebeharpekoek autolikidazio osagarriak edo aitorten edo jakinarazpen osagarri edo ordezkioak aurkezten ahalko dituzte, horretarako ezarritako epean edo epe hori amaitu eta gero. Azken kasu horretan, garaiz kanpokoak izanen dira.

2) Tributu-betebeharpekoek aitorten edo jakinarazpen osagarri edo ordezkioak aurkezten ahalko dituzte, lehenago aurkeztutakoak osatu edo ordezkatzeko, betiere mota batekoak edo besteak diren adierazita.

Izapideetarako epeak

48. artikulua.- a) Ordenantza partikularretan, izapide bakoitza egiteko bete beharreko epeak adieraziko dira. Ordenantza horiek ez badituzte epeak finkatzen, oro har ulertuko da ez direla sei hilabete baino gehiago joanen administrazio-prozedura hasten den egunetik prozedurari amaiera ematen dion ebazpena ematen den egunera arte, behintzat hori galarazteko aparteko arrazoirik ez bada, betiere behar bezala justifikaturik.

b) Administrazioak epeak ez betetzeak ez du esan nahi administrazio-ekintza iraungi egiten dela, baina bidea ematen die interesdunei kexatzeko erreklamazioa aurkez dezaten.

c) Noiznahi aurkezten ahal dira kexa-erreklamazioak izapideko akatsen kontra, eta, bereziki, prozedura etetea, jarritako epeak haustea edo arazoa behin-betikoz ebatzi aitzin konpon daitezkeen izapideak ez egitea

dakartzaten akatsen aurka. Kexa baiesten bada, diziplinako espedientea irekitzea ekarriko du, horretarako arazoirik izanez gero, erantzukizuna duen funtzionarioaren kontra.

Zergadunen errolda

49. artikulua.- Ordenantza partikularrean bertan hala zehaztuta badago, Udal Administrazioak zergadun-erroldak prestatzeari ekinen dio, betiere interesdunen aitortpenak, ezagutzen dituen datuak eta, orobat, ikuskapen administratiboa kontuan hartuta. Zergadun-errolda bat horrela prestatu eta gero, erregistro iraunkor eta publikotzat hartuko da, zeina Udalak erabakitako zernahi prozedura bidez –baita prozedura mekanikoaz ere– baliatuko baita.

50. artikulua.- a) Zergadunen errolda eratu ondoren, bertan gertatzen diren alta, baja eta aldaketa guztiak erreklamatzeko ahalko den administrazio-egintza baten bidez onetsi beharko dira, eta subjektu pasiboari haien berri emanen zaie, legeek agindu moduan.

b) Zergadunek gerora gertatu eta Erroldara zernahi alta, baja edo aldakuntzarik ekar dezakeen edozein aldaketaren berri eman beharko diote Udal Administrazioari, hura gertatu eta 30 egun balioduneko epean.

51. artikulua.- Zergadunen erroldak dokumentu fiskaltzat hartuko dira, halakoak non zerrenda, ordainagiri eta kobratzeko baliatutako bestelako agirietan aipatu beharko baitira behar den ordainarazpena eskuratzeko.

VI. KAPITULUA – TRIBUTU-IKEREKETA ETA -IKUSKAPENA

Ikerketa

52. artikulua.- Udal Administrazioak zerga-egitatea osatzen edo baldintzatzen duten egintzak, egitateak, egoerak, jarduerak, ustiapenak eta gainerako inguruabar guztiak ikertuko ditu, eta karga-oinarriaren balorazioa egiaztatuko.

53. artikulua.- Ikerketa egiteko, subjektu pasiboaren kontabilitate nagusiko edo osagarriko dokumentuak, liburuak, fitxategiak, fakturak, frogagiriak eta oharpenak aztertuko dira; era berean, ondasunak, elementuak, ustiapenak eta tributua zehazteko beharrezko den beste edozein aurrekari argigarri ikuskatuko dira.

54. artikulua.- Subjektu pasiboek betebeharra dute kontabilitate-liburuak, erregistroak eta kasuan-kasuan ezar daitezkeen gainerako dokumentuak bete eta kontserbatzeko.

Tributu Ikuskaritzaren eginkizunak eta antolamendua

55. artikulua.- a) Udaleko Tributu Ikuskaritzak subjektu pasiboaren edo gainerako tributu-betebeharpekoen tributu-egoera egiaztatzeko ardura du, Udalarekiko dituzten eginbideak eta betebeharrak zorrotz betetzen dituztela egiaztatze aldera, halako eran non, behar izatera, kasuan kasuko erregularizazioa gauzatu baitu.

b) Mandatu hori betetzeko, honako eginkizun hauei heldu behar die:

- Zergapeko egitateak ikertzea, Udal Administrazioak kontuan hartu ez dituenak aurkitzeko eta horiek kasuan kasuko subjektu pasiboari edo tributu-betebeharpekoari egozteko.

- Aitortpenak egiaztatzea segurtatzeko egiazkoak direla eta arauak zuzen aplikatu direla.

- Proposatzea, hala egokituz gero, egiaztatze- eta ikertze-jarduketan ondoriozko tributu-likidazioak.

- Bere kabuz edo Udal Administrazioako gainerako organoek eskatuta, egin beharreko jarduketak guztiak egitea norbanakoei edo beste erakunde batzuei buruzko informazioa lortzeko, baldin eta haien tributuen aplikazioa eragiten badute zuzenean nahiz zeharka.

- Egiaztatzea errenten, produktuen, ondasunen eta zerga-egitatearen gainerako elementuen balioa.

- Egiaztatzea zerga-onurak eman edo jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla.

- Subjektu pasiboari edo gainerako tributu-betebeharpekoari jakinaraztea arau fiskalen edukia eta horien ondoriozko betebeharren nahiz eskubideen ezaugarriak.

- Beste edozein jarduketa, baldin eta arauak kasuan-kasuan ezarritako egiaztapen-prozedura bereziek sortua bada, betiere bereziki zainduta erroldetan egon behar duten subjektu pasiboak haietan behar bezala sarturik egon daitezzen.

- Udal Administrazioako organo eskudunek ematen dizkieten gainerako guztiak.

56. artikulua.- a) Ikuskapen-jarduketak Udaleko Tributu Ikuskaritzari atxikitako funtzionarioek egiten dituzte, betiere Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamendua onetsi zuen ekainaren 11ko 152/2001 Foru Dekretuak Tributu Ikuskaritzari esleitzen dizkieten eskumenekin bat. Aurrekoa gorabehera, prestatzekoak bakarrik diren jarduketak, edo tributuen arloan garrantzitsu diren egitate edo inguruabarrak egiaztatzekoak edo frogatzekoak, funtzionario ez diren beste langile publikoei ere ematen ahal zaizkie.

b) Udaleko Tributu Ikuskaritzako funtzionarioak, ikuskatze-eginkizunak betetzen ari direnean, agintaritzaren agente gisara joko dira, haiei, zerbitzu-egintzetan edo horiek medio, dela hitzez, dela egitatez gogor, eraso edo desmen egiten dietenen administrazio- zein zigor-erantzukizuna zedarritzerakoan.

Agintariek, beren izaera edozein izanik ere, eta, oro har, eginkizun publikoak betetzen dituztenek laguntza eta babesa emanen dizkiete Tributu Ikuskaritzako funtzionarioei eta gainerako langileei, horiek halakorik eskatzen badute. Hori egin ezean, kasuan kasuko erantzukizunei egin beharko zaie aurre.

c) Ikuskariek agiria edo beste identifikazioaren bat edukiko dute beren eginkizunak gara ditzaketela egiaztatzeko.

Ikuskapen-jarduketak

57. artikulua.- 1) Udaleko Tributu Ikuskaritzak zerbitzu objektiboa emanen die interesdunei, eta Konstituzioan ezarritako eraginkortasun-, hierarkia-, deszentralizazio-, pilaketarik eza- eta koordinazio-printzipioen arabera jardunen du, legeei eta Zuzenbideari erabat men eginda.

2) Eginkizunak gauzatzean, bere agintearen eta betebeharren kalterik gabe, Udaleko Tributu Ikuskaritzak behar besteko kortesiaz jokatu du, eta interesdunei nahiz, orokorrean, jendeari ahalik eta errespetu handiena eskainiko die; eta, ikuskapen-jarduketei dagokienez, informazio guztia emanen die, bai haien eskubideei eta bai tributu-betebeharrei zein administrazioarekiko harremanetan izan beharreko jokabideari buruz, tributu-betebeharrak errazago bete ditzaten.

Udaleko Tributu Ikuskaritzako funtzionarioek zuhurtasun zorrotza eta erabateko sekretua gorde beharko dituzte kargua dela medio ezagutzen dituzten gaiei dagokienez, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 105.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

3) Ikuskapen-eskumenak dituzten organoetako edo egoitzetako langile guztiek ere zuhurtasuna eta sekretua gordetzeko betebeharrak horri heldu behar diote, egintzen gainean beren lanpostuetan bereganatutako ezaguerei dagokienez, aurreko atalean xedatutakoa haiei ere aplikatzekoa delarik.

58. artikulua.- 1) Ikuskapen-jarduketak honelakoak izan daitezke:

- Egiaztapenak eta ikerketak egitekoak.
- Tributu-arloko informazio garrantzitsua lortzekoak.
- Txostenak eta aholkuak ematekoak.

Jarduketa horien irismena eta edukia Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamenduan daude zedarriturik.

Udaleko Tributu Ikuskaritza, berezko dituen eginkizunak gauzatzean, kasuan kasuko organo eskudunak onetsitako tributu-kontrolako planei egokituko zaie, ezertan galarazi gabe aktuarioen ekimena, betiere eraginkortasun- eta aukera-printzipioekin bat.

2) Beste tributu-administrazioekin lankidetzan aritu behar badu, Udaleko Tributu Ikuskaritzak haiekin koordinatuko ditu planak eta jarduketa-programak, halako eran non jarduketa horiek kasuan kasuko lankidetzaren erregimenaren arauetan aurreikusitako irismena izanen baitute.

Ikuskaritza Zerbitzuak balorazio-jarduketak egiten ahalko ditu, tributuen edo diru-bilketaren kudeaketaren ardura duten beste organoek eskatuta.

59. artikulua.- 1) Ikuskapen-jarduketak honako hauetan gauzatu daitezke, Ikuskaritzak zehazten duenaren arabera:

- Kasuan kasuko tributu-betebeharpekoak helbide fiskala duen lekuan edo bere ordezkariak helbidea, langela edo bulegoa duen tokian, betiere azken hori Nafarroan baldin badago.

- Karga duten jarduerak osorik edo zati batean egiten diren lekuan.

- Zerga-egitatearen edo zerga-betebeharra dakarren egitatearen froga bat dagoen lekuan, hura partziala izanik ere.

- Iruñeko Udalaren bulegoetan, jarduketetako elementuak horietan azter badaitezke.

- Tributu-betebeharpekoen enpresetan, bulegoetan, lokaletan, instalazioetan edo biltegietan agertzen ahalko da Ikuskaritza, aldezturik komunikatu gabe. Jarduketak tributu-betebeharpekoekin edo lokaletako arduradunekin egiten dira.

- Tributu-betebeharpeko batek desgaitasunik edo mugikortasun murrizturik baldin badu, puntu honetan azaldukoen artetik hari erosoan zaion lekuan egiten da ikuskapena.

- Tributu-betebeharpekoen liburuak eta agiriak aztertu behar badira –eta horien artean zerga-egitatearekin zerikusirik duten programa informatikoak edo euskarri magnetikoko fitxategiak– halako jarduketak egiteko tokiari dagokionez Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamendua ezarritako irizpideak baliatuko dira.

2) Jarduketen denbora Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamenduan horri buruz ezarritakoarekin bat zehaztuko da.

3) Tributu-betebeharpekoek ordezkari baten bitartez jarduten ahalko dute, halako eran non hark ordezkari dela egiaztatu beharko baitu; halako kasuetan, ulertuko da tributu-betebeharpekoekin egin direla kasuan kasuko jarduketak.

4) Tributu-betebeharpekoek harrera egin beharko diote Ikuskaritzari, eta ikuskapen-lanetan egokia den laguntza emanen diote.

Ikuskaritzak errekeritutako tributu-betebeharpekoek nahitaezkoa izanen dute jarduketak egiteko adierazitako tokian, egunean eta orduan agertzea, berez edo ordezkari baten bidez, eta dokumentazioa eta eskatutako gainerako elementuak aurkeztu beharko dituzte edo Ikuskaritzaren eskura jarri.

5) Ikuskapen-prozeduran, kautelazko neurriak hartzen ahalko dira, behar bezala arrazoiturik, saihesteko hala tributu-betebeharren existentzia edo haiek bete izana erakusten dituzten froga erabakigarrien desagerpena, suntsiketa edo aldakuntza nola gero halakoak erakusteari uko egitea edo haien existentzia ukatzea.

60. artikulua.- 1) Udaleko Tributu Ikuskaritzaren jarduketak hasteko moduak honako hauek izanen dira:

- Tributu Ikuskaritzaren ekimenez, horretarako aurreikusitako plan berezien ondorioz.

- Organo eskudunak idatziz eta arrazoituta emandako aginduaren ondorioz, betiere tributu-kontrolako plana aurrez aldatuta.

- Tributu-betebeharpekoek eskatuta, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 138. artikuluan ezarritakoarekin bat.

- Salaketa baten ondorioz. Kasu horretan, salatzailea ez da interesduntzat joko salaketaren ondorioz abiaraziko den ikerketa-jarduketan, ezta halako gisara errekurtsorik aurkeztu edo erreklamaziorik egiteko legitimatutzat ere, eta nabarmen funsgabeak diren salaketak beste izapiderik egin gabe artxibatzen ahalko dira.

2) Udaleko Tributu Ikuskaritzaren jarduketak jakinarazpen bidez has daitezke, edo aurrez jakinarazpenik egin gabe interesdunaren bulego zein instalazioetan edo zerga-egitatearen froga partzialen bat non egon eta toki horretan agertuta. Jarduketok Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamenduan ezarritako irismena, eskumenak eta ondorioak izanen dituzte.

3) Ikuskapen-prozeduraren jarduketak bi urtean bukatu beharko dira, tributu-betebeharpekoek prozeduraren hasiera jakinarazi eta egun horretatik aurrera zenbatuta. Jarduketak bukatutzat hartuko dira bukaera jakinarazten den egunean edo jarduketaren ondorio den administrazio-egintza jakinarazitzat jotzen denean. Jakinarazteko betebeharra bete dela ulertu eta ebazpena emateko epea neurtzeko, aski izanen da frogatzea saio bat egin dela ebazpenaren testu osoa jakinarazteko. Ebazpena emateko epearen barnean, ez dira kontatuko araudiaren arabera ezartzen diren etenaldi justifikatuak, ez eta Tributu Ikuskaritzari egozteko modukoak ez diren arrazoiengatik prozeduran gertatzen diren atzerapenak ere.

4) Jarduketak eginbideetan, jakinarazpenetan, txostenetan eta aktetan jasoko dira. Agiriok Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamenduan ezarritako eginkizun, helburu eta ondorioak izanen dituzte.

Ikuskatze-jarduketaren agiriak

61. artikulua.- 1) Eginbideak Tributu Ikuskaritzak ikuskatze-prozedura bitartean ematen dituen agiriak dira, prozeduraren instrukzioan komenigarritzat jotzen diren egitateak edo gertaerak zein tributu-ikuskapenaren jasotzailearen edo jasotzaileen adierazpenak jasotzekoak.

2) Eginbideetan ez da izanen tributu-likidazioei buruzko proposamenik.

3) Eginbideetan, hauexek ere adieraziko dira: lehenik, non eta noiz egin diren, eta zein egoitza, bulego edo helbidetan; bigarrenik, eginbidea sinatzen duten Tributu Ikuskaritzako funtzionarioen identifikazioa, jarduketetan norekin jardun behar eta pertsona horren izen-abizenak, NAN zenbakia eta sinadura nahiz esku hartzeko duen izaera edo ordezkaritza, bai eta jarduketak zer tributu-betebeharpekoari buruzkoak diren eta horren nortasuna ere; azkenik, eginbidearen edukia osatzen duten egitateak edo gertaerak.

4) Gauzatzen diren eginbideetatik ale bat emanen zaio, beti, jarduketak norekin egin eta pertsona horri. Ale hori jaso nahi ez badu, zuzenbidean onartutako beste edozein bide erabiliz bidaliko zaio. Pertsona horrek eginbidea sinatu nahi ez badu, edo sinatu ezin badu, edo nola egin ez badaki, hori eginbidean jasoko da, ezertan galarazi gabe kasuan kasuko kopia ematea, aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat.

62. artikulua.- 1) Jakinarazpenak dira Tributu Ikuskaritzak bere eginkizunak betetzean edozein pertsonarekin harremanak edukitzeko erabiltzen dituen agiriak.

2) Jakinarazpenetan, Tributu Ikuskaritzak egitateak edo gertaerak jakinarazi, eta behar diren errekerimenduak egiten ahalko dizkie interesdunei. Jakinarazpenak gauzatzen diren eginbideen edukia iristen ahalko zaizkio.

3) Jakinarazpenak, Ikuskaritzak sinatu ondoren, interesdunei jakinaraziko zaizkie legeek agindutako eran, eta zein aktuariok igorriak diren eta horrek berak sinatuko ditu.

4) Jakinarazpenetan honako hauek adieraziko dira: non eta noiz egiten diren; zer pertsonari edo erakunderi zuzentzen zaizkion eta horien identitatea; nora bidaltzen diren; bidaltzailearen identifikazioa eta sinadura, eta jakinarazten diren egitateak edo gertaerak –edo jakinarazpenaren bitartez egiten den errekerimenduaren edukia–

. Jakinarazpenek interesdunei ikuskapen-jarduketan hasiera jakinarazteko balio badute, bertan jakinarazpenak eragiten duen preskripzioaren etetea adierazi beharko da, halakorik badago.

5) Jakinarazpenen bina kopia eginen dira, eta Ikuskaritzak kopia bat gordeko du.

63. artikulua.- 1) Tributu Ikuskaritzak, ofizios edo hirugarrenek eskatuta, honako txosten hauek bidaliko ditu:

- Antolamendu juridikoaren arabera nahitaezkoak direnak.
- Administrazioako beste organo nahiz zerbitzu batzuek edo botere legegileek zein judizialek eskatzen dizkietenak, legeetan ezarritakoaren arabera.
- Tributuak aplikatzeko behar direnak, halakoetan txostenak bidaltzeko egokitasuna arrazoitu beharko delarik.

2) Partikularki, honako kasu hauetan eman beharko du txostena Tributu Ikuskaritzak:

- Berak irekitzen dituen desadostasun- edo aurretiazko frogak osatzeko.
- Zergen oinarriak zeharka kalkulatzeari buruzko araubidea aplikagarria bada, edo bidezkoa bada zantzu-metodoak erabiltzea.
- Tributu-erloto lege-iruzurra adierazteko prozedura berezia abiarazten bada.
- Adostasunez sinaturiko ikuskapen-akten ondoriozko likidazioen gainean aurkezten diren errekurtsoen edo erreklamazio ekonomiko-administratiboen kariaz.
- Ogasun Publikoaren kontrako delituaren aztarnarik atzematzen bada, organo judizial eskudunari edo Ministerio Fiskalari igorri beharreko espedienteari erantzeko.

3) Aktuarioak, tributuak aplikatzeko beharrezkotzat jotzen badu, txostena ematen ahalko du, hori egiteko egokitasuna arrazoituz. Orobat, Tributu Ikuskaritzak txostena eman dezake, kasuan kasuko subjektu pasiboaren edo erantzulearen ondasunen nahiz eskubideen egoera deskribatzeko eta, horrela, likidaturiko tributu-zorren kobrantzari dagokion bilketaren kudeaketa errazteko.

4) Tributu Ikuskaritzaren txostenak akta batean jasotako likidazio-proposamenaren osagarri badira, proposamen horrek euskarri dituen egitateak eta zuzenbideko funtsak jasoko dituzte.

64. artikulua.- 1) Aktak Tributu Ikuskaritzak egiaztapen- eta ikerketa-jarduketan emaitzak jasotzeko egiten dituen agiri publikoak dira, tributu-betebeharpekoen tributu-egoera egoki jotzen duen moduan erregularizatzeko proposaturik edo egoera hori zuzena dela aldarrikatuta.

2) Tributu Ikuskaritzak egindako aktak agiri publikoak dira, eta haien formalizazioa eragin duten egitateen frogagarri, kontrakoa egiaztatu ezean.

3) Ikuskapen-aktetan tributu-betebeharpekoek onartutako egitateak egiazkotzat jotzen dira, eta ezin izanen dira zuzendu, egitatezko errakuntza egin dela frogatzen ez bada.

65. artikulua.- 1) Ikuskapen-jarduketan emaitza dokumentatzeko, aktek honako hauen aipuak jaso behar dituzte, gutxienez:

- Formalizazioaren tokia eta data.
- Akta sinatzen duten aktuarioen identifikazio pertsonala.
- Kasuan kasuko tributu-betebeharpekoaren izen-deiturak edo sozietate-izena, osorik, identifikazio fiskalaren zenbakia eta zerga-egoitza, bai eta jarduketak norekin egin eta pertsona horren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia ere, jarduketetan parte hartzeko duen izaera edo ordezkaritza adierazita.

- Jarduketak hasteko data.

Zerga-egitatearen edo tributu-betebeharraren egitatezko baldintzaren oinarriko elementuak zein hura kasuan kasuko tributu-betebeharpekoari egoztekoak, bai eta erregularizazioa egiteko zuzenbide-oinarriak ere.

- Orobat, interesdunek Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 85. artikulua babesean alegaziorik aurkeztu duten ala ez ere jasoko da, eta alegaziorik aurkeztu badute, horien balorazioa egin beharko da.

- Interesdunen tributu-egoeraren erregularizazioa, aktuarioek bidezkotzat joa; halakoetan, hala badagokie, tributu-betebeharpekoen kuota, errekaratu eta berandutze-interes gisara galdaturiko tributu-zorra adierazi beharko da.

- Tributu-betebeharpekoen adostasuna edo desadostasuna.

- Aktaren ondorengo prozedura-izapideen adierazpena, eta, akta adostasuneko bada, haren ondoriozko likidazio-egintzaren aurka aurkez daitezkeen errekurtsioak, zer organori zuzendu behar zaizkien eta horiek aurkezteko epea.

2) Kasuan kasuko tributu-betebeharpekoa enpresaburu edo profesionala bada, eta zer tribututarako garrantzizko jo eta horien kasuan, interesdunaren derrigorrezko liburuen edo erregistroen egoera jaso beharko da aktan, ikusitako akatsak edo hutsak adierazita; bestela, adierazi beharko da ondoriozta daitekeela horiek aztertu eta gero ez dagoela akatsik, kasuan kasuko zergaren ordainarazpenari begira funtsezko denik.

3) Egiaztatu beharreko aldi osorako akta bat eta bakarra egiten ahalko da, tributu edo zerga-kontzeptu bakoitzeko. Hala eta guztiz ere, likidazioak banan-banan egin beharko dira zergaldi bakoitzerako.

4) Udaleko Tributu Ikuskaritzak horretarako onetsitako eredu ofizialetan eginen ditu bere aktak.

66. artikulua.- 1) Aurretiko aktek behin-behineko likidazioak sorraraziko dituzte, organo eskudunek eginen dituztenak.

2) Bidezko izanen da aurretiko akta bat abiaraztea honako kasu hauetan:

a) Subjektu pasibo batek Tributu Ikuskaritzak tributu-egoera erregulatzeko egin dion proposamenaren alderdi batzuk besterik onartzen ez badu. Kasu horretan, subjektu pasiboak adostasuna zein kontzeptu eta elementurekin espresuki adierazi eta horiek aurretiko aktan jasoko dira, eta desadostasun-akta eginen da gainerako kontzeptuei buruz. Akta horietako bakoitzean bestearen formalizazioari buruzko aipua jasoko da. Aurretiko aktaren ondorioz egindako likidazioa aldi berean abiarazitako desadostasun-aktaren ondorioz behin-behineko edo behin betiko gisara eginen den aktaren konturakoa izanen da.

b) Ikuskaritzak zerga-egitate edo -oinarrien egiaztapena eta ikerketa burutu ezin izan dituen kasuan, baldin eta jarduketak eten beharra badago, betiere behin-behineko likidazioa egiten ahal delarik.

c) Beste edozein egitatezko kasutan, baldin eta aurrekoen antzekotzat jotzen bada.

3) Tributu Ikuskaritzak aurretiko akta bat ematen badu, espresuki adierazi beharko du hori, halako eran non azaldu beharko baititu akta hori horrela egitera behartu duten inguruabarrak eta zerga-egitatearen edo horren balorazioaren elementuak, betiere Ikuskaritzak zein elementu egiaztatu eta horiek berak kontuan hartuta.

67. artikulua.- 1) Zorpekorik gabeko aktak dira tributu-betebeharpekoek zorrik ordaindu beharrik gabeko likidazioa ekartzen dutenak. Zorpekorik gabeko aktak behin egiaztatuta adostasuna adieraztekoak izan daitezke, edo tributu-betebeharpekoen egoeraren erregularizazioa ekar dezakete. Ikuskaritzak jotzen badu zuzena dela kasuan kasuko subjektu pasiboaren tributu-egoera, aktan jasoko du hori, eta akta horretan berean zehaztuko ditu adostasunak barne hartzen dituen kontzeptuak eta aldiak. Akta horri egiaztapeneko eta adostasuneko akta deituko zaio.

2) Orobat akta eginen da, Ikuskaritzak subjektu pasibo baten tributu-egoeraren erregularizazioa bidezkoa jo eta horrek Udalarekiko tributu-zorrik eragiten ez badu. Edonola ere, subjektu pasiboa ados dagoen ala ez adieraziko da.

68. artikulua.- 1) Izapideak egiteko orduan, Ikuskaritzaren aktak adostasunekoak edo desadostasunekoak izan daitezke, interesdunak egindako likidazioaren proposamena, ikuskapen-aktan jasoa, osorik onartzen duen edo ez.

2) Nolanahi ere, tributu-ikuskapenaren aktak bi alderdiek sinatuko dituzte, eta interesdunari ale bat emanen zaio. Interesduna azaltzen ez bada, akta sinatu nahi ez badu edo horren ale bat jaso nahi ez badu, akta desadostasuneko gisara tramitatuko da. Interesdunak akta sinatzen ez badaki edo sinatu ezin badu, aktuarioak egoera hori jaso beharko du.

3) Halako aktak izapidetzerakoan, men eginen zaio ekainaren 11ko 152/2001 Foru Dekretuaren 55. eta 56. artikuluetan xedatutakoari, Dekretu horrek onetsi baitzuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamendua.

69. artikulua.- 1) Zerga-egitatearen aurrez eraturiko froga badago, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 136.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, akta tributu-betebeharpekoak edo beren ordezkariak bertan egon beharrik gabe egiten ahalko da. Zerga-egitatearen aurrez eraturiko froga existituko da, baldin eta egitatea frogatutzat jotzen ahal bada, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 106. artikulutik 111.era bitarteko artikuluetan frogak baloratzeko jasotako arauen arabera betiere. Aktan, erabilitako egitate eta frogabideak adieraziko dira, behar den bezain zehatz adierazi ere, eta hari aktuarioaren txostena ere erantsiko zaio.

2) Akta formalizatu baino lehen, tributu-betebeharpekoari kasuan kasuko prozedura abiarazi dela jakinaraziko zaio, eta hamabost eguneko epea irekiko da non espedientearen berri emanen baitzaio, interesdunak bere eskubideen aldeko alegazioak egin eta bidezko agiri nahiz ziurtagiri guztiak aurkez ditzan.

Beste arauetara igortzea

70. artikulua.- Tributu Ikuskaritzaren eskumen eta jarduketekin, aktak zein tributu-likidazioak izapidetzearekin eta zehapen-prozedurarekin zerikusirik duten afera guztietarako eta, oro har, ordenantza honetan xedatu ez den orotarako, men eginen zaio Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean eta ekainaren 11ko 152/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamenduan xedatutakoari.

VII. KAPITULUA. DIRU-BILKETA

Ordaintzeko aldiak

71. artikulua.- a) Diru-bilketa honela egiten ahalko da:

- Borondatezko epean.
- Epe exekutiboan.

b) Borondatezko epean ordaintzera beharturik daudenek horretarako jarri diren epeetan ordainduko dituzte zorrak. Epe exekutiboan, hertsapenez eginen da bilketa, premiamendu-bidea erabilia indarra duten legeekin bat, bere bizkar zeukan betebeharra borondatezko epean bete ez duen betebeharrekoaren ondarearen kontra.

c) Borondatezko epean ordainketa geroratu, zatikatu edo konpentsatzeko eskaera aurkeztuz gero, espediente horiek izapidetu bitartean ezin izanen da epe exekutiboan hasi.

Isun baten kontra errekurtsioa edo erreklamazioa behar den moduan eta epean aurkeztuz gero, epe exekutiboan ezin izanen da hasi harik eta zehapena administrazio-bidean irmo bilakatu eta borondatez ordaintzeko epea bukatu arte.

Zorren sailkapena, diru-bilketaren ondorioetarako

72. artikulua.- a) Udaleko agintariak egindako likidazioetatik heldu diren tributu-zorrak honela sailkatzen dira, bilketaren ondorioetarako: jakinaraziak, jakinarazpenik gabekak eta autolikidatuak.

b) Jakinarazietan, ezinbestekoa da jakinarazpena egitea, subjektu pasiboak jakin dezan tributu-zorren berri, halako eran non legeak agindu bezala jakinarazten ez bada zorra ezin izanen baita galdatu.

c) Jakinarazpenik gabeko zorrak banako jakinarazpenik behar ez dutenak dira, subjektuek aurretik ezagunak dituzten zergadun-erroldeetatik datoze-lako.

Konparaziora, aldizka eta ordainagiri bidez kobratu beharreko tributu-erantzutan, behin kasuan kasuko erroldan edo matrikulan alta hartu izanaren likidazioa jakinaraziz gero, zilegi izanen da hurrengo likidazioak multzoka jakinaraztea, betiere hori hala egiten dela ohartaraziko duten ediktuen bidez, baldin likidazio horiek lehengoan berdin-berdinak badira, edo izan diren aldaketak orokorrak badira.

d) Tributu-zorrei autolikidatuak esaten zaie subjektu pasiboek, aitorpen-likidazioen bidez, aldi berean ordaintzen badituzte.

Ordaintzeko tokia

73. artikulua.- 1) Iruñeko Udalaren aldeko zorrak honako hauetan ordaintzen ahalko dira, kasuen arabera:

a) Udaleko Diruzaintzan.

b) Diru-bilketan laguntzen duten kreditu-entitateetan, baldin eta zorrak ordainagiriaren edo ordainketa-gutunaren bidezko kobrantzei badagozkie.

c) Udaleko alor eta zerbitzuetan eskudirutan ordaintzeko jarritako kutxetan, baldin eta kasuan kasuko tributuari edo diru-sarrerari buruzko ordenantzaren edo arau partikularrean espresuki aurreikusita badago. Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 231.5 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, kutxa horiek ordenantza honetan araututakoaren arabera funtzionatuko dute.

d) Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu), behin interesdunei zorrak bertan ordaintzea ahalbidetzen dieten sistema elektronikoa gaituta. Sistema horiek ordaindu izanaren egiaztagiria emanen dute.

e) Posta-bulegoetan, ordainketa kontu-korrontean sartzeko posta bidezko igorpenaren bidez egiten denean.

2) Diru-bilketan laguntze aldera kreditu-entitateei ematen zaizkien baimenek edo haiekin formalizatutako hitzarmenek ez dituzte inolaz ere haiek bilakatuko diru-bilketarako organo.

3) Baldin eta ordainketa 1. apartatuaren a), b) edo c) letretan ezarritako lekuetan egiten bada, dirua jasotzen duen pertsonak ordainketa egiaztatzeko agiria emanen du, honela, kasuaren arabera:

a) Baliozkotze mekanikoa eginez edo entitatearen zigilua eta kutzazainaren sinadura jarritako ordaintzaileak aurkeztutako ordainagiriaren edo ordainketa-gutunaren, bertan adierazita diru-sarrera zer datatan egin den.

b) Kutzazainak agiria emanez, informatikoki edo eskuz egin eta behar bezala zenbakitutako liburu-taloitegi batetik hartuta, bertan adierazita diru-sarrera zer datatan egin den.

4) Udaleko alorrean eta zerbitzuetan jarritako eskudirutako kutxetan egindako ordainketek men eginen diete arau hauei:

a) Eskudirutako kutxek zein zerbitzu edo bulegotan egon eta horren ardura duen alorreko idazkaritza teknikoarekin izanen dute lotura organikoa, idazkaritza horrek kutzazaina izendatuko duelarik. Kutzazainaren eginkizun hori Udalak kasuan kasuko zerbitzua enpresa bati esleitu eta horrek egiten badu, enpresa horrek artikulua honetan jasotako arauak bete beharko ditu.

b) Diru-sarrera bakoitzaren kopia edo ordezkagiria gordeko da, jatorrizko egiaztagiriaren zenbaki berberarekin.

c) Kutxazainak, informatikoki edo eskuz, egunkari-liburu bat kudeatuko du, non kobrantzak, deskobrantzak, Udaleko Diruzaintzan sartutako funtsen bidez egindako ordainketak eta saldoa idatziko baititu; halaber, horietako bakoitzari dagokion kontzeptua jaso beharko du.

d) Egunero, dauden funtsen kontaketa eginen da.

e) Saldoa egunero sartuko da Udaleko Diruzaintzan, salbu aipatu saldoak 600 euro baino gehiago jotzen ez badu. Eskudirutan, gehienez ere, 60 euro gordetzen ahalko dira kutxan, diru-trukerako. Dirua Udaleko Diruzaintzaren kutxan sartuko da, edo xede horretarako Iruñeko Udalaren izenean irekitako kontu korrante batean.

f) Kutxazainak gutxienez hilabetean behin aurkeztuko dizkio ardura duen alorreko idazkaritza teknikoari liburu taloitegien ondoak –behin taloitegi horiek amaitutakoan–, diru-sarreren egiaztagirien kopiak edo ordezkagiriak, funtsak Udaleko Diruzaintzan sartu izana egiaztatzen duten agiriak eta egunez eguneko liburua, haien gaineko kontrola egiteko. Halaber, ardura duen alorreko idazkaritza teknikoak alor horretan jarritako eskudirutako kutxa bakoitzaren egunkari-liburuaren kopia igorriko du Udaleko Diruzaintzara, haren gaineko kontabilitate-formalizazioa egite aldera.

5) Posta bidezko igorpenaren bidez egindako ordainketetan, igorpena egiteko beharrezkoak eta derrigorrezkoak diren igorlearen datu guztiak erregistratuta geratuko dira posta bulegoko sistema informatikoetan. Igorlea eta ordainketa egin behar duena ez badatoz bat, azken hori ere identifikatuko da.

Posta-bulegoak argi eta garbi jasoko ditu idatziz dirua kontu-korrantean sartzeko modalitatean posta bidezko igorpenaren bidez ordaindu nahi den zorra identifikatzeko beharrezkoak diren datuak; igorpenaren igorleak aurkezten duen ordainketa-agirian –ordaintzeko epemugak indarrean egon behar du– jasotako informazioa idatziz jasoko du, eta datu horiek eskuratuko ditu barra-kodearen bidez.

Posta bidezko igorpen zerbitzuaren gastuak oro igorpenaren igorleak ordainduko ditu, igorpena onartzen den unean.

Ordainketak ondorioak izanen ditu Iruñeko Udalaren aurrean posta bidezko igorpenaren zenbatekoa jasotzen duenean horretarako izendatutako diru-bilketarako kontu-korrante mugatuan. Ez dira ordaindu izanaren egiaztagiritzat hartuko Administrazio honen aurrean posta-bulegoak igorpenaren igorleari ematen dizkion agiriak.

Ordaintzeko epeak

74. artikulua.- Tributu-zorrak honela ordaindu behar dira:

1) Jakinaraziak, haiek jakinarazi eta 30 egun balioduneko epean.

2) Kobratzeko epearen berri jakinarazpen kolektiboaren bidez emanen da, iragarkiak legez ezarritako bitartekoak erabilia argitaratuko direla.

3) Subjektu pasiboak berak autolikidatutako zorrak dagozkien aitorpenak aurkeztu ahala ordaindu beharko dira, tributu bakoitza arautzen duen ordenantzak ezarritako egun eta epeetan, edo, hori egin ezean, 30 egun balioduneko epean, zerga-egitatea sortzen den egunetik aurrera.

Interesak eta errekariguak

75. artikulua.- 1) Epe exekutiboaren hasierak zedarrituko du berandutze-interesen eta epeari dagozkion errekariguen sortzapena. Epe exekutiboko errekariguak hiru motatakoak dira: betearazte-errekarigua, premiamendu-errekarigu murriztua eta premiamendu-errekarigu arrunta. Errekarigu horiek bateraezinak dira haien artean, eta borondatezko epean ordaindu ez den zor osoaren gainean kalkulatzeko dira.

2) Betearazte-errekarigua % 5ekoa izanen da, eta premiamenduzko probidentzia jakinarazi aurretik borondatezko epean ordaindu ez den zor osoa ordaintzen denean aplikatuko da.

3) Premiamendu-errekarigu murriztua % 10ekoa izanen da, eta borondatezko epean ordaindu ez den zor osoa eta errekarigua bera ordaintzen direnean aplikatuko da, premiamendu-prozedura hasi zaien zorrak ordaintzeko araz ezarritako epea amaitu aurretik.

4) Premiamendu-errekarigu arrunta % 20koa izanen da, eta artikulua honetako 2. eta 3. apartatuek aipatzen dituzten inguruabarrak ematen ez direnean izanen da aplikagarri.

5) Premiamendu-errekarigu arrunta berandutze-interesekin bateragarria da. Betearazte-errekarigua edo premiamendu-errekarigu murriztua aplikagarriak direnean, ez dira epe exekutiboaren hasieratik sortutako berandutze-interesak exijituko premiamendu-prozedura hasi zaien zorrak ordaintzeko araz ezarritako epea amaitu aurretik ordaindutako zorraren gainean.

6) Halaber, zordunak premiamenduzko probidentziaren kostuak ordaindu beharko ditu.

76. artikulua.- 1) Behin ordainketaren mugaeguna iritsita ordainketa egin gabe, berandutze-interesak sortuko dira.

Halaber, berandutze-interesa eskatuko da egintzaren betearazpena eteten den kasuetan eta edonolako geroratzeko, zatiketa edo luzapenetan.

Nolanahi ere, zorraren zenbateko osoa bermatzen bada, dela kreditu-entitate batek edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal solidario baten bidez, dela kauzio-asegurua egiaztagiriaren bidez, galda daitekeen berandutze-interesa diruaren legezko interesa izanen da, diru-sarrera egiten den egunera artekoa.

2) Aitorpen-likidazioei edo autolikidazioei dagozkien diru-sarrerei –epetik at baina alde zurrerik errekerimendurik izan gabe aurkeztu badira– eta epetik at eta aurretiko errekerimendurik gabe aurkeztutako aitorpenek eragindako likidazioei honako errekaru hauek egiten zaizkie:

a) Aitorpena aurkeztu eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea bukatu ondoko hilabetearen barnean, % 1eko errekarua ezarriko da, eta ez dira aplikatuko berandutze-interesak eta bestela eska zitezkeen zehapenak.

b) Lehen hilabetea iraganik, baina aitorpena aurkeztu eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea bukatu ondoko hiru hilabete pasatu baino lehen, % 5eko errekarua ezarriko da, eta ez dira aplikatuko berandutze-interesak eta bestela eska zitezkeen zehapenak.

c) Aipatu hiru hilabeteak iraganik, baina aitorpena aurkeztu eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea bukatu ondoko hamabi hilabete pasatu baino lehen, % 10eko errekarua ezarriko da, eta ez dira aplikatuko berandutze-interesak eta bestela eska zitezkeen zehapenak.

d) Aitorpena aurkeztu eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea bukatu ondoko hamabi hilabete pasatuta, errekarua % 15ekoa izanen da, eta ez dira aplikatuko bestela eska zitezkeen zehapenak. Halako kasuetan, berandutze-interesak galdutako dira, halako eran non halakotzat joko baitira 12 hilabete epe hori amaitu eta kasuan kasuko ordainketa egin bitarte sortutakoak.

Errekaru horiek epe exekutiboko errekaruekin bateragarriak izanen dira, baldin eta tributu-betebeharpekoek ez badute dirua sartzen epetik kanpoko aitorpen-likidazioa edo autolikidazioa aurkeztearekin batera.

Atal honetan ezarritako errekaruak aplikatzekoak izan daitezkeen, epe kanpo aurkeztutako aitorpen-likidazioek edo autolikidazioek berariaz identifikatu behar dute zein zergaldira dagozkion, eta zergaldi horri buruzko datuak bakarrik eduki beharko dituzte.

Ordaintzeko era

77. artikulua.- 1) Tributu-zorrak honako bitarteko hauekiko bat baliatuta ordaintzen ahalko dira:

a) Legezko dirua.

b) Banku-txekeak.

c) Iruñeko Udalaren webgunera joaz eta kreditu- edo kargu-txartela bidez, datafonorik instalatuta duten ordainketa-tokietan.

d) Posta bidezko igorpena edo legeek onartutako beste hainbat bitarteko erabilita.

2) Banku-txeke bidez ordainduz gero, txekuek, merkataritzako legeek galdutako betekizun orokorrez gain, baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Izenduna izan eta Iruñeko Udalaren alde egin izatea.

b) Data txekua noiz aurkeztu eta egun berekoa edo bi egun lehenagokoa edukitzea.

c) Entitate igorpendunak adostua edo egiaztatua izatea.

d) Igorlea den pertsona edo sozietatearen izena, modu argian adierazita, sinaduraren azpian.

Txekearen aurkezpenak hark zenbat jo eta kopuru horretatik askatuko du zorduna, behin txekua diru bihurtuta. Kasu horretan, txekua noiz aurkeztu den eta data horretatik aurrera izanen du eragina. Baldin eta txekua bat diru bihurtzen ez bada, osorik edo hein batean, behin borondatezko epea iraganda, premiamenduzko prozedura administratiboaren bidez galdutako da zenbatekoa ordaintzeko. Txekua baliozko eran adostu edo egiaztatutako badago, hura adostu edo egiaztatu zuen entitateari galdutako zaio, edo, bestela, zordunari.

78. artikulua.- 1) Diru-bilketan laguntzen duten kreditu-entitateetan ordaintzeko, ordaindu behar duenak emanen zaion ordainagiria edo ordainketa-gutuna aurkeztu beharko du aurrez. Baldin eta tributu-betebeharpekoak ordainagiria galtzen badu, edo hori ez badauka eskura aldizka kobratzekoak izaki banakako jakinarazpena nahitaezko ez duten tributu-zorrak ordaintzeko, kopia bat eskatu beharko dio Udala Administrazioari, ordainketa egin baino lehen.

Ordainagiria, gordailu-entitate laguntzaileak behar bezala zigilatuta, beraren bidez ordaindutako zorrak ordaindu izanaren egiaztagiria bilakatu da.

Zordunak kreditu-entitateari ordaintzeko emandako aginduek ez dute eraginik izanen, berez eta haiek bakarrik, Udalaren aurrean, ezertan galarazi gabe agindua eman duenak kreditu-entitatearen kontra agindua ez betetzeagatik gauzatu ditzakeen ekintzak.

2) Tributu-zorrak ordainagiri bidez aldizka kobratzekoak badira, haien ordainketa kreditu-entitateetan irekitako kontuetara helbideratzen ahalko da, halako eran non horiek subjektu pasiboaren administratzaile modura jokatu eta horrek baimendutako zorrak ordaindutako baitituzte.

Helbideratzeak baldintza bakarra du: idatziz ohartaraztea Iruñeko Udaleko Zerbitzu Orokorretako Alorrari (Ogasuna) eta dagokion kreditu-entitateari helbideratze hori zerga-kontzepturi buruzkoa den; hori zorra ordaintzeko borondatezko epea hasi eta, gutxienez, bi hilabete lehenago egin behar da.

Helbideratze erabakia aldizkako ordainagiri bat ordaintzerakoan ere jakinarazten ahalko zaio diru-bilketan laguntzen duen kreditu-entitate bati. Helbideratze horrek hurrengo aldiari dagokion ordainagiritik aurrera hartuko du indarra.

Helbideratzearen balioa epemugarik gabea izanen da, non eta interesdunak baliogabetzen ez duen, salbu eta kreditu-entitateak atzera egiten badu edo Udal Administrazioak, justifikatutako arrazoiak direla medio, baliogabetzat jotzen badu.

3) Ordainagiri bidez aldizka kobratzekoa den tributu-zor bati dagokion kobratzeko mugaeguna bete gabe duen ordainagiri baten kobrantzak ez du lehenagokoak ordaindu direla esan nahi, eta ez du iraungitzen zorpeko direnak eskuratzeko Udalak duen eskubidea.

Ordainketa geroratu eta zatika egitea

79. artikulua.- Geroratu edo zatikatzeko eskatzeko zer baldintza behar diren, haiek erdiesteko zer jardunbide segitu behar den, zer bermeri eta zer beste baldintzari iritzi zaien beharrezko, horiek denak, Udal Aurrekontuak betetzeko oinarrietan jasoko dira.

Kautelazko neurriak

80. artikulua.- 1) Diru-bilketarako eskuduna izanik zorren kobrantza segurtatzeko, Udal Administrazioak behin-behineko kautelazko neurriak hartu beharko ditu, baldin eta arrazoizko zantzuak badaude hala egin ezean kobrantza ezinezkoa izan litekeela edo kobratzeko zailtasun larriak leudekeela.

Kautelazko neurria behar bezala jakinarazi beharko zaio ukituari, haren aplikazioa justifikatzen duten arrazoiak espres aipatuta.

2) Neurriek galarazi nahi den kaltearen proportziokoak izan beharko dute, eta zorraren kobrantza –interesak, errekarquak eta betetze-gastuak ere gehituta– segurtatzeko doi behar den zenbatekoa izanen dute. Inolaz ere ez da hartuko neurririk, konpontzeko zaila edo ezinezkoa den kaltea eragin dezakeenik.

3) Kautelazko neurri hauek hartzen ahalko dira:

a) Tributu-itzulketen ordainketa edo Iruñeko Udalak egin beharreko beste ordainketa batzuk atxikitzea.

b) Ondasun eta eskubideen prebentziozko bahitura, non, halakorik bada, prebentziozko idatzoharra eginen baita.

c) Ondasun edo eskubideak besterendu, kargatu edo erabiltzeko debekua.

d) Legez aurreikusita den beste edozein.

4) Artikulu honetan araututako kautelazko neurriak kudeaketa, ikuskapen eta diru-bilketako prozedurak tramitatzen diren bitartean hartzen ahalko dira, noiztik eta Udal Administrazioak arrazoibidez eta behar adina egiaztatzen ahal duenetik 1. apartatuan ezarritako kasuak direla eta 2. apartatuan adierazitako mugak betetzen direla.

5) Kautelazko neurrien ondorioak bertan behera geldituko dira neurri horiek hartu eta sei hilabetera, salbu kasu hauetan:

a) Bahitura bihurtzen badira premiamendu bidean edo kautelazko neurri judizialean, non kautelazko neurria hartzen den egunetik izanen baitute eragina.

b) Neurriak hartzera eraman zuten inguruabarrak desagertzen badira.

c) Interesdunak eskatuta, nahikotzat jotzen den beste berme batek ordeztea erabakitzen bada.

Betiere, kautelazko neurriak kendu egin beharko dira, baldin eta tributu-betebeharpekoak kreditu-entitate baten edo elkarrenganako bermedun sozietate baten abal solidarioa edo kauzio-aseguru baten ziurtagiria aurkezten badu kautelazko neurriaren zenbatekoa kobratuko dela bermatuta.

d) Arrazoitutako erabaki baten bidez epe hori luzatzen bada, baina, inoiz ez, sei hilabete baino gehiago.

Diru-bilketarako arau bereziak

81. artikulua.- 1) Subjektu pasibo bati eta berari dagozkion tributuen bilketa egintza batean bateratzen ahalko dira, eta kasu horretan kontzeptu bakoitzari dagozkion zorrak banaka jasoko dira, betiere horien batuketak zedarrituko duelarik ordainarazteko metatu den zorra.

2) Subjektu pasibo baten zorren diru-bilketa gauzatzeko egintzak jakinarazi eginen dira, baldin eta zor horiek metatuta egiten duten zenbatekoak gainditzen badu gutxieneko kostu estimatua –15 euro–.

82. artikulua.- 1) Ondasunak bahitzearen kostuaren proportzionaltasun- eta estaldura-printzipioekin bat, Udalak honako hurrenkera honen arabera eginen ditu bahiturak, zorrak 600 euro baino gehiago jotzen ez badute:

a) 300 eurora bitarteko zorrak:

- Eskudirutan edo gordailu-entitateetan irekitako kontuetan.

b) 300,01 eta 600 euro bitarteko zorrak:

- Eskudirutan edo gordailu-entitateetan irekitako kontuetan.

- Soldata, ordainsari eta pentsioetan.

Bahitura gauzatzeko jarduketek huts eginez gero –eta, betiere, zenbait irizpide kontuan harturik, hala nola zorren jatorria, izaera edo antzinasuna–, kreditua kobratu ezinezkotzat aitortzen ahalko da, ezertan galarazi gabe bere birgaitzea, tartean preskripziorik ez izatera.

2) Gordailu-entitateetan irekitako kontuak bahituz gero, traba altxatzeko agindua ematen ahalko da, baldin eta atxikitako kopurua 6 euro baino txikiagoa bada eta hori egirik kreditua gauzatzea kaltetzen ez bada.

VIII. KAPITULUA. BALIABIDEAK

83. artikulua.- Behin ordenantza fiskalak eta horien aldaketak behin betikoz onetsirik, onespren horren kontra egiten ahalko da, bai eta tributuak kudeatu, ikuskatu eta biltzeko egintzen aurka ere, indarra duten legeetan Nafarroako toki-entitateetako egintzen eta erabakien aurka joateko errekurtsoen erregimen orokorrari jarraikiz.

84. artikulua.- 1) Bidezkoak diren errekurtsuak paratzeko, ez da beharrezkoa izanen galdatutako diru-kopurua aurretik ordaintzea.

2) Egintza baten kontra errekurtsua paratzeak ez du geldiaraziko egintza hori betetzea, horrek dakartzan legezko ondorioekin, likidatutako kuota edo eskubideen, interesen, errekarjuen eta kostuen bilketa barne. Aurrekoa gorabehera, interesdunak hala eskatzen badu, zer egintzaren kontra egin eta hura gauzatzea eten egingen da, honako kasu hauetan:

a) Berme hauetako bat Udaleko Diruzaintzaren eskura jartzen bada:

- Gordailua, eskudirutan.

- Abal edo fidantza solidarioa, kreditu-entitate batek edo elkarren bermerako sozietate batek emana.

b) Salbuespen gisa bermerik gabe etetea bidezkoa bada, indarra duten arauekin bat.

3) Aurkeztutako bermeak nahikoa izan behar du, hitzartutako etendurak sor ditzakeen berandutze-interesak ez ezik honako kopuru hauek ere estaltzeko:

a) Zorra dirua biltzeko borondatezko epean badago, tributu-zor horren zenbatekoa, errekarjuak, interesak eta zehapenak barne, halakorik balitz.

b) Borondatezko epea amaituta egonez gero, aurreko kopuru bera gehi % 25 gehiago, premiamendu-errekargua eta prozeduraren balizko kostuak direla bide.

Hitzartutako etendurak sor ditzakeen berandutze-interesak direla bide bermatu behar den zenbatekoa, betiere ezertan galarazi gabe dagokion behin betiko likidazioa, bi hilabeteri dagokiona izanen da, errekurtsua berraztertzea bada, edo urtebetekoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzenduta gora jotzeko errekurtsuaren bidez errekurritutako egintza baten etendura eskatuz gero.

Bermeak baliozkoa izaten jarraituko du etendura administrazio-bidean izan bitartean, bermearen ondorioak administrazio-azuzko bidera ere hedatu daitezkeelarik. Bermeak bere indarra galdu badu, edota bermatu beharreko kopurua handiagoa bada –errekarjuak, interesak edo gehitutako beste erantzukizun batzuk direla-eta–, berme berri bat aurkeztu beharko da, edota aurrekoa osatu.

4) Tributu-betebeharpeko batek administrazioarekiko azuz-errekurtsua jartzen badu, eutsi egingen zaio administrazio-bidean erabakitako etendurari, betiere berme nahikoa izanez gero, harik eta organo judicial eskudunak etendura horren gaineko erabakia hartu arte.

5) Paratutako errekurtsua ezetsi eta tributu-zorra ordaindu behar bada, tributuaren berandutze-interesa ere ordaindu beharko da, etenaldiak zenbat iraun eta hori bitarte.

6) Bermea zorra ordaindutakoan itzuli edo askatuko da, hala dagozkion errekarju, interes eta kostuak nola etendurak iraun duen bitartean sortutako interesak barne. Halaber, bidezkoa izanen da hura itzultzea, egintza baliogabetzea erabakitzen bada.

Kitapen batean errekarjurik, interesik edo kuotaz besteko elementurik baliogabetuz gero, ordaindu gabe irauten duen zorrari atxikiko zaio bermea, baina zorraren zenbatekoa bakarrik estaltzen duen beste berme batekin ordezkatzeko ahalko da.

7) Tributu-zehapenen betetzea berehala etenen da, inolako bermerik aurkeztu behar gabe, baldin eta haien kontra bidezkoa den errekurtsua aurkezten bada behar den eran eta epean, ezin gauzatuko direlarik administrazio-bidean irmoak izan arte.

IX. KAPITULUA. KALEEN SAILKAPENA

85. artikulua.- Zerga-ondorioetarako, katastroko poligonoak eta aldeak oro hartuko dira kontuan, eta haiek aplikatuko dira, ordenantza partikular bakoitzak ezarritakoaren arabera.